

Autoitzulpenaren zenbait aspektu Unai Elorriagaren *SP-rako tranbia* - *Un tranvía en SP* lanean: XML azterketa literarioari aplikatuta*

(Some aspects of self-translation in *SP-rako tranbia* -
A trainway in SP, the work by Unai Elorriaga: applica-
tion of XML to literary analysis)

Amorrortu Gómez, Estíbaliz; Isasi Martínez, Carmen;
Fernández Carrelo, Patricia; Pérez Isasi, Santiago
Deustuko Unib. Unibertsitateen Etorb., 24. 48007 Bilbo

BIBLID [1137-4454 (2006), 22; 83-126]

Jaso: 05.03.28

Onartu: 06.01.10

Unai Elorriagaren SP-rako tranbia-Un tranvía a SP eleberraren euskal eta erdal bertsioren arteko ezaugarri linguistikoen eta estiloaren erkaketa lana. XML etiketatze metodologia garatu eta erabili da jatorrizko testua eta itzulpena lerrokatzeko eta gero azterketa egin ahal izateko metadatuak txertaketa egiteko.

Giltza-Hitzak: Unai Elorriaga. Itzulpen literarioa. Autoitzulpena. XML eta literatura. Informatika eta literatura testuak. Informatika Humanistikoa. Lerrokatutako testuak.

Estudio contrastivo de rasgos lingüísticos y de estilo de las versiones en euskara y castellano de la obra SP-rako tranbia - Un tranvía en SP en Unai Elorriaga a partir del desarrollo y aplicación de un etiquetado XML para el alineamiento y la introducción de metadatos para el análisis.

Palabras Clave: Unai Elorriaga. Traducción literaria. Autotraducción. XML y literatura. Informática y textos literarios. Informática Humanística. Textos alineados.

Etude contrastive aux traits linguistiques et du style des versions en euskara et espagnol de l'oeuvre SP-rako tranvía - Un tramvía en SP chez Unai Elorriaga à partir du développement et de l'application d'un étiquetage XML pour l'alignement et l'introduction de métadonnées pour l'analyse.

Mots Clés: Unai Elorriaga. Traduction littéraire. Autotraduction. XML et littérature. Informatique et textes littéraires. Informatique Humaniste. Textes alignés.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2004. urteko ikerketa laguntza jaso du. Estíbaliz Amorrortu eta Carmen Isasi izan dira ikerlari nagusiak, eta Inés Jacob, Iratxe Lasa, Iker Martínez eta Santiago Pérez Isasi, ikerlari kolaboratzaileak.

1. SARRERA

Ikerketa honen helburu nagusia zera da: testu digitalen tratamendurako metodoa, XML etiketatua, azken urteetako euskal literaturan oso garrantzi handiko izan den literatura-lan bati aplikatzea. *SP-rako tranbia –Un tranvía en SP* testu bikoitza izanda are interesgarriagoa da metodoa, bai jatorrizkoa, euskarazkoa, zein erdarazkoa, itzulpena, idazleak berak egindakoak dira eta.

Gure oinarrizko planteamenduaren bigarren helburua, jatorrizko eta itzultako testuen osagai linguistiko eta estilistikoaren erkaketa, XML markazioarekin guztiz lotuta dago, erkaketa egiteko guztiz lagungarria baita markazioa. Konparaketa bertsio biren arteko ezberdintasunei baino ez dagokie eta, Unai Elorriaga autoitzultzailearen teknika dela eta, hipotesi batzuk egiteko balio beharko luke.

Metodologia-saiakuntza hau Informatika Humanistikoaren¹ barruan kokatu behar dugu. Filologia eta teknologia-baliabideen arteko lankidetzaren alorrean, metadatuak txertatzeko markazioa erabiltzea testuen tratamendurako ahalmen handiko berrikuntza da².

TEI³ bezalako etiketatze proposamena egoteak eta, gainera, nazioartean horren zabal erabiltzeak baieztatu besterik ez dute egiten aipaturiko ahalmena.

Bestetik, aukeratu ditugun testuek itzulpen literarioaren alorrera eramaten dute gure azterketa; alor horretan da berritzailea gure lana. Izan ere, orain arte laguntzeko informatika baliabide edo tresnak testu administratiboen lerrotatzeari erabili dira eta lagundutako itzulpenerako datuak lortzeko. Azken alorraren ingurukoak dira, besteak beste, Deustuko Unibertsitateko DELI taldeak⁴ (ikerketa honetan parte hartu duten batzuk DELIkideak dira) garatutakoak.

Itzulpen literarioaren alorrean, ostera, prozedura-mota ekarpena da berez, ez bakarrik lortu daitezkeen ondorioengatik baizik eta metodo-esperimentazioagatik ere. Ildo horretatik, aurrekari hurbila daukagu *Rómulo Proiek-*

1. Gaiaren inguruko italiar tradizio bibliografiko zabalean erabiltzen den zentzuan darabilguk ere terminoa. Ikus Domenico Fiormonteren azken lanak: *Scrittura e filologia nell'era digitale*, Bollati Boringhieri, 2003.

2. Ikus. ABAITUA, J. et al.: "Contenidos y metacontenidos en la edición digital". *La edición digital. Letras de Deusto*, 100. zenb., 2003, 11-52. orr., Abaitua J. eta C. Isasi (arg.).

3. <http://www.tei-c.org/>

4. Ikus. Joseba Abaituaren hurrengo lanak: "Memorias de traducción en TMX compartidas por internet". *Revista Tradumática*, 0 zenb., 2001,

<http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/num0/articles/jabaitua/imprimir.pdf>, edo ABAITUA, J.: "Tratamiento de corpora bilingües", *Tratamiento del lenguaje natural*, M. A. Martí eta J. Llisterri arg., Edicions Universitat de Barcelona, 2002.

tuan: XVII. mendeko testu baten itzulpen europar batzuen edizio hipertextual eleanitza eta XML markazioa; une honetan ikerketa bigarren aldian dago⁵.

Agerian dago lanean erabilitako metodologiak alde filologiko hutsa eta teknologia berrien erabilera uztartzen dituen. Erabilera horri dagokionez, azterketarako hautatu ditugun testuen (eleberriko lehen eta bigarren kapitulu- luen) edizio lerrotatua egin eta, XML markazioan erabiltzen den sintaxi estandarrean oinarrituta, etiketa multzoa garatu da euskaraz; etiketon helburua testuan azterketarako beharrezkoak diren datuak txertatzea da.

Etiketatzearen hierarkia eta gure helburuak zehaztuta, datuak automatikoki ateratzeko *softwarea* garatzeko kanpoko laguntza eskatu dugu.

Ikerketaren alde filologikoari dagokionez, testuen arteko baliokidetasunak (eta ezberdintasunak) zehazteko gure taxonomia egin behar izan dugula esan beharra dago. Geroago azalduko dugun taxonomia hau eta metodoa berea ere beste kategorizazio tekniko batzuetara egokitu daiteke⁶.

Behin betiko etiketatua burututa, markatutako korpusari programa aplikatzerakoan, lehen hurbilketa baino izan gura ez duten ondorio filologikoetara heltzeko estatistika tipoko ondoz-ondoko datuak atera ahal izan ditugu. Agerian dago, bai Itzulpen Literarioaren Teoriaren aldetik⁷, bai lotu dakizkion beste azterketa-ikuspegi batzuetatik (pragmatika edo diskurtsoaren azterketatik, kasurako) artikulua honetan proposatzen dugunaz aparte hurrengo azterketetan⁸ asko gehitu daitekeena.

Momentuz, Unai Elorriaga beraren iruzkinek aberastu dituzte gure ondorioak. Artikuluaren amaieran sartu ditugu, lehengo euskaraz eta gero Unai berak erdarara itzultakoa.

5. Lehen emaitzak hiru txosteneko panelean aurkeztu dira: "Utilidades de una edición múltiple multilingüe", *I Congreso Internacional sobre textos con versiones múltiples*, Antolatzailea: *European Society for Textual Scholarship*, Universidad de Alicante (2004ko azaroaren 25-27). Romuloren planteamenduak eta IVITRA (Institut Virtual Internacional de Traducció- Universidad de Alicante: <http://www.ivittra.ua.es/catala/presentacion.php>-ren zientzia-igurikimenak bat datoz.

6. Ikus, besteak beste, behin eta berrir egin den J. P. Vinay eta Darbelnet-en proposamena (*Stylistique comparé du français et de l'anglais*, Paris, Didier, 1977, argitalpen berrikusia), edota baliokidetasun translemikoaren ikuspegia (gaztelarazko tratatu erabilienetako bat zera da: RABADÁNEN, R.: *Equivalencia y traducción*, León, Universidad de León, 1991).

7. Eta batez ere itzulpen mota hau harrera edo berridazketa prozesu bezala kontsideratuta (gogoan izan *Translation, Rrewriting and Manipulation of Literary Fame*, A. Lefevere-ren lan eza-guna, Londresen 1992. urtean argitaratuta eta M^a Carmen África Vidal eta Román Álvarezek gaztelarera itzulia: *Traducción, reescritura y manipulación del canon literario*, Salamanca, Ediciones Colegio de España, 1997).

8. Beste azterketa horiek, dudarik ez dago, eleberria bere osoan eta bertsio bietan hartu beharko lituzkete azter-eremutzat, eta ez bakarrik ezberdintasunak arakatzeko. Gainera, mikroegitura-osagaiez aparte testuen makroegitura ere aztertu beharko lukete.

2. ETIKETATUA

2.1. Deskripzioa

Arestian esan bezala, tresna informatikoen bidez testuak arakatu eta erabili ahal izateko beharrezkoa da aztertu gura ditugun metadatu edo metaedukiak erakusten dituzten etiketak eranstea testuoi. Metaedukiaren kontzeptua testuaren egileak zein beste inork testuaren antolaketa, genero-sailkapen edota osaera sintaktiko, morfologiko, erretoriko eta abarrari buruz gehitzen duen informazioari dagokio. Informazio hau gerora testuaren beste erabil-tzaile batzuk zein antzeko testuak sortu gura dituztenek erabil dezakete.

XX. mendeko bigarren zatian hainbat metalengoaia garatu ziren; horiek formatua eta edukia ezberdintzea ahalbidetzen dute eta testuaren semantika eta egituraketa hobeto erakusten dute. Besteak beste, hirurogeita hamargarren hamarkadan sortu zen SGML (*Standard Generalized Markup Language*) azpimarratu nahi genuke. Metalengoaia hori osatzen duten etiketen hierarkia berezko DTD (*Document Type Definition*) baten zehazten da aplikazio bakoi-tzean; kodifikatutako testu jakin baten etiketak zein ordenatan agertu behar diren azaltzen duen dokumentua da DTD. XML (*eXtensible Markup Language*) SGMLren bertsio sinplifikatua da, komunitate zientifiko eta teknikoan oso prestigioitsua da eta zabal erabiltzen da, oso testu ezberdinetarako erabil dai-tekeelako, batetik, eta, bestetik, jadanik XML lengoaiaren bidez etiketatutako testuak berriro erabil ditzaketelako beste tresna askok.

XMLen aplikazioen artean, testu humanistikoak kodetu eta anotatzeko balio duen TEI (*Text Encoding Initiative*) daukagu, eta baita EAD (*Encoded Archival Description*) ere, artxibistika alorrerako. Proposamen bi hauek, zuzenean dela zeharka dela, bere egitura eta testua aberasten duten edukiari buruzko metadatu multzo garrantzitsuak dira.

Unai Elorriaga proiektuan XML etiketatze-lengoaia erabili dugu, TEIren bertsio berrienari, hau da TEI-P4ri, aholku batzutan behintzat, jarraituta eta geroago azalduko den sintaxia erabilita. Horretarako *ad hoc* azterketa hau egiteko diseinaturiko etiketa multzoa erabili dugu. Azterketaren antolaketa hierarkikoa –ezberdina gaztelerazko eta euskarazko testuetarako– DTDetan deskribatzen da eta jarraian aurkeztuko dugu.

Dena den, eskuartean dugun azterlana, jatorrizko testua eta bere itzulpena erkatzea, TEIk diseinatutako eta proposatutako etiketen ezaugarrietatik kanpo dago oraingoz, TEIren sortzaileak, momentuz, hizkuntzaren deskripzioan eta edizio literarioan –eta azken hau oso zentzu zabalean hartuta– baino ez dira aritu eta.

Orokorrean esan daiteke bai XML bai TEI testuak deskribatzeko, eta ez konparatzeko, lengoaiak direla. Estandarrari estuago atxikitako etiketatuak testuak banan-banan markatzea (euskarazkoa batetik eta erdarazko itzulpena bestetik) eta testu biren arteko aldea erakutsiko luken programa erabiltzea eskatuko luke. Modu horretan eginda, baina, alperreko informazio

gehiegi, sarri informazio konplexuegia, eta gainera maila ezberdinei dago-kiena (morfologia, sintaxia, pragmatika, estilistika eta testuaren antolaketa) sartu beharko genuke. Hori dela eta, estandarretik urrundu eta lan honetarako propio diseinatu ditugu etiketak eta etiketok irakurri eta interpretatzeko tresna informatikoa sortu eta erabili dugu. Dena dela, dudarik ez dago, ezau-garri antzekodun beste lanetan ere erabili ahal izango dira gure etiketak.

Proiektu honetarako diseinatu ditugun etiketak mota bikoak dira:

a) Lerrokatze etiketak: eleberriaren kanpoko egitura deskribatzen dute; hau da, kapituluak, atalak eta paragrafoak erakusten dituzte. Etiketa hauek testu bietan ipintzen dira, bai euskarazkoan bai erdarazkoan, eta eratorritako testuan, hau da, erdarazko itzulpenean, erlazionatzen dira horretarako beren beregi diseinatutako atributu baten bidez (*korresp*, “korrespondentzia”tik).

b) Beste etiketak testu baten baino ez dira ipintzen, kasu honetan erdarazkoan, itzulpen-prozesuaren helmuga testua da eta. Etiketok jatorrizkoa eta itzulpenaren arteko ezberdintasunak deskribatzen dituzte, geroxeago zerrendatuko ditugun mota eta mailen arabera.

Bestetik, azpimarratu behar da etiketatze gehiena –salbu eta korpus azterketetan nazioartean guztiz hedatuta dauden *p* edo *s* etiketak– eta programa (geroxeago azalduta) euskaraz egin direla. *Unai Elorriaga* proiektuak Cervantes Virtual-en gomendioei jarraituaz aparte, ahal den neurrian behintzat etiketatua lekuan lekuko hizkuntzetara moldatzeko gomendatzen du eta⁹, markatzeko lengoaien euskarazko erabilera zabaltzeko ekarpena ere egiten du.

2.2. Etiketatua dela eta hartutako erabaki filologikoak


Testuen edizioak segmentazio mota bi uztartzen ditu: bata, testuak paraleloan lerrokatuta edukitzeko beharrezkoa dena; eta bestea, azterketarako beharrezkoak diren metadatuak sartzen dituen markatzearena. Mota bietan “itzulpen unitatea” zertan datzan erabaki behar izanda da, oinarritzko testu eta helmuga testuen arteko baliokidetasunak haien arabekoak dira eta.

J. Abaituari jarraituta, erabili dugun itzulpen-unitatea malgu samarra da: “Una definición informal de alineamiento es la siguiente: Dados dos conjuntos de información entre los que existe una cierta relación de similitud en función de un determinado criterio, el alineamiento consiste en identificar correspondencias entre subconjuntos de ambos conjuntos. De todos los posibles emparejamientos que se pueden establecer, se seleccionará aquél

9. Cervantes Virtual erakundeak erabiltzen dituen irizpideak honako honetan daude azalduta: BIA, M. eta SÁNCHEZ QUERO, M.: “Desarrollo de herramientas informáticas para el mercado multilingüe: conversión del TEI al español”, ABAITUA, J. eta ISASI, C. (arg.): *Letras de Deusto*, 100. zenb., Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, uztaila-iraila, 2003, 69-80. orr.

que satisfaga en mayor medida el criterio en que se basa el alineamiento. Los trabajos realizados a este respecto, toman como unidad de alineamiento bien la oración o bien la palabra. En nuestro caso, se reconocen y emparejan *unidades de traducción variables* (UTV)”¹⁰.

Kokapen paraleloari (lerrokatzea ere dei litekeenari) dagokionez, paragrafoa hartu da unitatetzat, zera ulertuta, puntu eta apartek mugaturiko unitatea. Erabaki hau ez da arbitrarioa, testu biren konparaketa egiteko burutu genituen lehen saioetan egindako lanean dauka oinarria. Izan ere, *Sp-rako tranbia* testuak hizkuntza bietan hierarkia argia daukala antzeman genuen hasieratik:



1. Taula: Egitura hierarkia

Zatiak alde batera utzita, horiek etiketatuta testuen identifikazio eta lerrokatzeari ez genioke eta ezer gehituko, hartu dugun erabakia zera izan da: etiketen hierarkian, eta lerrokatzean jakina, egitura hori berori gordetzea. Unitate txikiagoak, hala nola esaldia edo sintagma, etiketatzea ere bazegoen baina, gaztelera eta euskararen arteko distantzia linguistikoa eta hasierako azterketa saioan bertan antzemandako testu biren arteko aldaketa ugariak kontuan hartuta, aukera hori alboratu genuen. Konplikazio txiki batzuk salbu, testuaren etiketatze prozesuak erabaki egokia izan zela erakutsi du.

Zailagoa izan da itzulpen-unitatea definitzea beste mailako etiketatzean, hau da, testu bietako unitateen arteko itzulpen-baliokidetasunak aztertzeko etiketatzean. Itzulpengintza teoriak asko eta era askotakoak izanik —ez dugu oraingoan horietaz jardungo¹¹— baliokidetasun morfologiko, morfosintaktiko eta lexikoa batzen dituen unitatearen kontzeptua¹² erabili dugu. Testuaren iza-

10. ABAITUA, J.; CASILLAS, A.; MARTÍNEZ, R.: *Tratamiento de textos administrativos bilingües: El proyecto LEGEBIDUNA*, Procesamiento de lenguaje natural XI-2, Philología Hispalensis, 1997, 115-130. orr. <http://www.serv-inf.deusto.es/abaitua/konzeptu/lege2dun.htm>

11. Ikus. oso baliagarria den sintesi hau: Abaitua, Joseba: “Memorias de traducción en TMX compartidas por Internet”, in Revista Tradumática, 2001eko urria, 0 zenb., <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista>. Baita, Abaitua, Joseba: “Unidades de traducción”, <http://sirio.deusto.es/abaitua/konzeptu/12uutts.htm>, (azken bertsioa, 1997). Nord, Christiane: “La unidad de traducción en el enfoque funcionalista”, *Quaderns. Revista de traducció* 1, 1998, 65-77, <http://www.bib.uab.es/pub/quaderns/11385790n1p65.pdf>

12. Barchudarow-enarekin erlaziona daiteke (ikus. Nord, C., *op. cit.*), baina Abaituaren 6. behe-oharrean aipatutakoei jarraitzen die.

erak berak ere eta hizkuntza biren arteko ezberdintasunak horretara bultzatzen gintuen: batzutan itzulpena jatorrizkoaren morfemaz morfemakoa bada ere beste batzutan baliokidetasun unitateak askoz handiagoak dira, esaldia edo paragrafoa bera ere. Erabakia hartzeko beste arrazoa zera izan zen: etiketatze prozesuaren hasieran antzeman genuen testu biren arteko distantzia.

Gure helburua ez da izan testuak maila gorago baten aztertzea –“testu osoa” edo kultura-baliokidetasuna¹³ aztertzea– nahiz eta batzutan, geroago adieraziko den bezala, paragrafoa baino gorago dagoen unitatean antzekotasunak eta eraginak ematen diren. Erlazio horietako batzuk *non* atributua erabilita aztertu ahal izan ditugu baina beste batzutan XML tresnekin kodifikazioa egitea oso zaila da.

Lerrokatze eta itzulpen unitateak zehaztuta, autoitzulpenari buruzko fenomeno interesgarriak aukeratu genituen ikerketa hau egiteko. Fenomeno posibleen zerrendak arakatuta eta “ekonomia informatikoa”-ri kasu eginez, aztertzeko fenomenoak bost motatara murriztea erabaki zen: baliokidetasunak (*baliok*), ordezkapenak(*ordez*), gehikuntzak (*gehi*), ezabaketak (*ezab*) eta puntuazio aldaketak (*punt*)¹⁴. Etiketen izenak Unai Elorriagaren itzulpenari dagozkio: adibidez, euskaraz egon ez eta gaztelerazko bertsioan gehitu direnei gehikuntza deitu diegu, idazleak (itzultzaileak) jatorrizkoa itzultzerakoan gehitu ditu eta.

Hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan egonkor gelditu dena ez dugu etiketatu, gure helburua ez baita Unai Elorriagaren estiloa, euskaraz ezta erdaraz ere, aztertzea, baizik eta autoitzulpen prozesua bera.

Era askotakoak diren fenomenoak hain etiketa zabalen bidez sailkatzeko atributua zehazteko beste atributu bat behar genuen; hau da, zein hizkuntza edo literatura-mailari dagozkion aipatutako ezberdintasunak zehaztu ditzagun. Aldaketa aniztasuna dela eta, 3. atalean ikusiko dugun legez, atributuak gai izan behar du singularra pluralaren ordezkoa markatzeko esate baterako, baina baita paragrafo bat edo batzuen ezabaketa edo metafora edo ahozko-tasun indargarri pragmatikoa gehitu dela adierazteko ere. Hala, hizkuntza mailaren arabera, bost kategoria daude: *gram* (gramatikalak baino ez diren fenomenoak, gehienetan morfologikoak), *lex* (eduki semantikoa aldatu gabe adierazpen lexikoan gertatzen diren aldaketak), *sem* (testuaren edukia aldatzen duten adierazpenen aldaketak, ñabardura semantikoa gehituz, kenduz edo aldatuz), *infor* (termino edo sintagma bati baino gehiagori eragiten dion eta testuaren edukia errotik aldatzen duen adierazpen aldaketa) eta *prag* (testuaren osagai pragmatikoen aldaketak: gizalege markak, ahozko-tasun adierazleak eta abar).

13. Proposamen horrek ere jarraitzaile ugari ditu (ikus. LEFEVERE, A.: *Traducción, reescritura y la manipulación del canon. literario*, Salamanca, Colegio de España, 1997).

14. Etiketa, atributu eta atributuaren balio bakoitzaren sintaxia eta esanahia 2.3 atalean dago azalduta. Era berean, etiketatzeak sortutako datu zehatzak 4.2 atalean dago. Atal honetan hasieran hartu eta gerora etiketatze prozesuan gehiago zehaztu ditugun erabakiak azaldu ditugu.

Bosgarren kategoria bat ere badago: *erreg*, hizkuntza-erregistro mailako aldaketak, hasieratik oso agerikoak, markatzeko balio du; azkenik, *erret* etiketa dugu. Horregaz estilistika edo narrazio teknikari dagozkion aldatzen diren elementuak adierazten dira.

Era berean lehen azterketa-saioetan argi geratu zen geroko azterketarako egokia izan zitekeela estilo zuzena eta narratzailearen ahotsa ezberdintzea. Pertsonaien ahotsak banatuta gordetzeko narrazioa hirugarren pertsonan egitea baino hizkuntza baliabide gehiago behar dira, bai pertsonaia bakoitzaren estiloa emateko, baita ahozkotasuna eta lagunartekotasuna adierazteko.

Horregatik, testuaren egitura berrikusita, etiketatze beste osagai bi gehitzea ebatsi zen: batetik <perts>, atributu bakoa, paragrafoa baino txikiagoa beti, eleberriaren elkarriketa zatiak, gidoi zein komatxoek bidez markatuta, adierazteko. Eta pertsonaien ahotsean agertzen diren atalak ere (“Lucasen ariketa” eta “Mariaren ipuina”) *perts* etiketaren bidez markatu dira eta hola atal horretan dagoen guztia estilo zuzenean dagoela adierazten da.

Etiketa eta atributua osagai ezberdinak eta maila diferentetakoak izanik ere eta hierarkiaren maila berean ez egonagatik, programaren diseinuak estilo zuzenean gertaturiko fenomeno guztiak batera aztertzei aukera ematea beharrezkoa zitzaigun, modu horretan fenomenok estilo zuzenean baino ez diren gertatzen ala antzeko proportzioan testu osoan gertatzen diren argi dezagun.

2.3. Etiketak, atributuak eta balioak

Arestian azaldutako irizpide eta erabakiak abiapuntutzat hartuta, eta beti ere erabili dugun markatze lengoaiak dituen mugak gogoan izanda, etiketen diseinua burutu genuen, bai lerrokatzea egiteko –lehen hiruak: *testu*, *kapitulu*, *atal*– bai jatorrizko testua eta itzulpenaren arteko ezberdintasunak adierazteko (*zati*, *seg*, *s*). Lehen motakoak testu bakoitzerako deskriptiboak direnez eta egitura markatzeko balio dutenez, derrigorrezkoak dira –testua kapituluek osatu behar dute, atalek kapitulua eta paragrafoek atala–; bigarren multzokoak aukerakoak dira, jatorrizko testua eta itzulpenaren artean aldea dagoenean baino ez dira agertzen.

Paragrafoari dagokion *p* etiketa kategoria biren artean dago, lerrokatze unitatea izan eta, ondorioz, testu bakoitzaren egiturari badagokio ere –eta horren frogaraz erdal bertsioan *korresp* agertu behar dela dugu–, fenomeno batek (*ezabaketa*, *gehiakuntza*, *ordezketa*...) paragrafo osoan eragina duenean bigarren motako etiketen forma hartzen du, eta ondoren azalduko ditugun *mota* eta *azpimota* hartzen ditu.

DTD hierarkian ageri diren orden berean azalduko ditugu hemen etiketak. Etiketen sintaxi orokorra dela eta, hartutako azken erabakia zera izan da: eragiten dion osagaiaren kategoriaren izena ematea etiketan (hau da, paragrafoa, perpausa, segmentua eta abar) eta etiketa hori antzematen den itzul-

pengintza-fenomenoaren (gehikuntza, ezabaketa, ordezkapena, eta abar) eta aldaketok dauden maila linguistiko eta literarioen atributu deskriptiboekin osatzea.

2.3.1. Etiketak

Erabilitako etiketak ondoren dituzue, baita haien atributu eta balioak ere:

<testu>: testu hasiera markatzeko etiketa estandarra da, XML dokumentuetan derrigorrezkoa. Kasu honetan apur bat aldatu dugu, *hizk* atributua gehituta, programari testua zein hizkuntzatan dagoen adierazteko. Horrela, programa gai izango da euskarazkoa (jatorrizkoa) eta itzulpena ezberdintzeko. Ezberdintasun hori egiteak garrantzi handia dauka testu biren etiketatuak ezberdinak dira eta.

<kapitulu>: eleberriaren kapitulu bakoitzaren hasiera identifikatzen da <kapitulu> etiketaren bidez. Euskaraz eta erdaraz sintaxi ezberdina dauka. Lehen kasuan <kapitulu id=""> agertzen da, hau da, eleberriko kapitulu zenbakia adierazteko balio du; erdarazko testuan, berriz, bere sintaxia **<kapitulu id="" korresp="">** da; *id* erdarazko eleberriko kapituluari dagokio eta *korresp* euskarazko eleberriko kapituluari dagokio. Gure kasuan bertsio bietako kapituluak bat datozenez, zenbaki biak berdinak dira beti; *corpora* ezberdinekin ez du hola zertan izan, material narratiboa berriro ordenatu bada.

<atal>: eleberriko kapituluak testu ataletan daude banatuta, lehen atala narratzailearen ahotsarena izaten da eta ondokoa edo ondokoa pertsonaiaren batena. Hortaz, beharrezkoa da horretan etiketa bat ipintzea, kapitulu baten atal ezberdinen ezaugarriak ezberdinduko badira. Berriro ere, jatorrizko testuko etiketak zenbaki identifikazioa baino ez du egiten: **<atal id="">**; erdarazko bertsioiko etiketak atributu bi ditu, *korresp* eta *modu*, eta ondoko sintaxia: **<atal id="" korresp="" modu="">**. Agerian dagoenez, *korresp* etiketaren funtzioa atal bakoitza dagokion euskarazko testuarekin erlazionatzea da, bertsio bietan *atalak* bat ez badatoz arazorik ez izateko; *modu*, bestetik, atalaren ahots nagusia (narratzailea ala pertsonaiak) adierazteko erabili dugu, lehen esan bezala, estilo zuzenekoak aparte aztertu ahal izateko. *Atal* etiketaren *id* zenbakia beti 1 zenbakitik hasten da kapitulu guztien hasieran.

<zati>: *zati* etiketa bertsio biren artean aldea dagoenean, hierarkiaren arabera agertu behar den lehena da. Zehatzago esanda, *zati* paragrafoa baino handiagoak diren eta gehikuntza, ezabaketa edo ordezkapena moduko aldaketa jasan duten zatiei deitzen zaie. *Zati* ageri denean, euskarazko bertsioan **<zati id="">** agertuko da eta gaztelerazkoan **<zati id="" mota="" azpimota="">**. Gaztelerazko eta euskarazko bertsioetako zenbakiak, kasu bakoitzean, berdinak izan behar dira eta zenbakiak kapitulu bakoitzaren hasieran 1ekin hasten dira; *mota* eta *azpimota* atributuak testuan sortu den aldaketa motari dagokie, gero azalduko dugun legez.

<p>: testuaren egitura deskribatzen duen azkena da *p* etiketa, derrigorrezkoen artean azkena, hain zuzen. Lerrokatze unitate txikiena da paragrafoa, baita zuzenean bere barnean testua eraman lezaken handiena ere, *testuk* zein *atalek* eta *zatik* *p* etiketa derrigorrez izan behar baitute. *Kapitulu* eta *atale*ekin gertatzen den bezala, euskarazko eta gaztelerazko bertsioan agerpen ezberdina dauka (**<p id="">** eta **<p id="" korresp="">** hurrenez hurren) *p* etiketak, eta gaztelerazko *korresp* eta euskarazko *id* zenbaki berdinak izan behar dira. Erdarazko paragrafo bat euskarazko biri badagozkio, *korresp*="m, n" agerpena dauka. Paragrafo osoa ordezkatu, ezabatu edo gehitu denean *mota* eta *azpimota* atributuak erabili dira, eta etiketa osoa hola agertzen da: **<p id="" korresp="" mota="" azpimota="">**. Aurreko kasuetan bezala, pren zenbakia kapitulu bakoitzean 1etik hasten da.

<perts>: etiketa honek, narratzailearen ahotsa nagusi denean, paragrafoaren barruan estilo zuzenean dauden esaldi edo segmentuak markatzeko balio du.

<seg>: paragrafoa baino unitate txikiagoa da, eta itzulpena egiterakoan aldaketaren bat izan duen esaldia baino txikiagoa edo handiagoa izan daiteke. Gainera, segmentu barruan beste segmentu bat egon daiteke: esaterako, beste osagai bat gehitu zaion sintagma baten aldaketa semantikoa egon bada. *Zati* eta *prekin* gertatzen den bezala euskaraz **<seg id="">** forma dauka eta erdaraz **<seg id="" mota="" azpimota="">**, eta *zati* kasuetan bezala, bertsio bitako *idak* berdinak izan behar dira. *Seg* unitate aldakorra da eta ez dagokio inola ere sintagmari, morfemaren hedapenekoia izatetik esaldi multzo hedapenekoia izatera aileagatu daiteke. *Atal* eta *prekin* ez bezala, *id* zenbakiak paragrafo barrukoak dira eta bakoitzean 1etik hasten da.

<s>: etiketatuen hierarkian *s* (ingelesezko *sentence*-etik dator) azken etiketa da, nahiz eta, arestian esan dugun moduan, *seg*-ek hura baino unitate txikiagoak etiketatze ere balio duen. Sintaxia *zati* edo *seg* unitateena bezalakoa da: jatorrizko testuan **<s id="">** eta itzulpenean **<s id="" mota="" azpimota="">**. Paragrafo bakoitzean zenbakitzen da, *seg* bezalaxe.

2.3.2. Balioak

2.3.2.1. Moduren balioak

Atal etiketaren atributua da *modu* eta kapituluko *atal* horretan noren ahotsa den adierazteko balio du. Balio bi baino ez ditu: *narr*, narratzailearen ahotsa bada, eta *perts*, pertsonaiaren batena bada. Horrela, arestian azalduetako *perts* etiketadun testuak eta *modu*="perts"-en bidez etiketatutako atalek estilo zuzeneko testu guztia (eleberriaren pertsonaien ahotan dagoen dena) osatzen dute.

2.3.2.2. Motaren balioak

Mota atributua beti doa *zati*, *seg* eta *s* etiketekin eta *prekin* ere ager daiteke, baina, edozein kasutan ere, erdarazko bertsioan. *Mota* atributuak jatorriz-

kotik itzulpenera zein aldaketa mota egon den adierazteko balio du. Arestian zehaztutako irizpide filologikoen arabera, bost balio izan litzake atributu honek:

- **balioak:** baliokidetik dator. Hizkuntza biren arteko ezberdintasunak direla eta sortutako aldaketak adierazten ditu. Ezberdintasunok morfologia mailakoak izan daitezke: esaterako, mendi izenetan euskarazko mugagabearen ordeztarazko determinatzaile singularra, familiar-teko izenen aurrean posesiboa erabili ala ez (“*aita*” > “*mi padre*”, 1, 112/108)¹⁵, eta abar; hiztegi mailakoak: hizkuntza baten lexikalizata dauden adierazpen edo esapideak (esate baterako, fenomeno atmosferikoak hitzez adierazterakoan); erregistroa markatzerakoan (“*orain bai gustura*” > “*¡ahora sí que estoy a gusto!*”, 1, 75/71) edo pragmatika mailakoak (*fronting* edo aurreratze adibideak: “*horixe pentsatu zuen*” > “*eso es lo que pensó*”, 1, 21/21).
- **ordez:** mota etiketaren ordeztar balioaren bidez hizkuntzaren edozein dimentsiotan gertatutako osagaien bat gutxi gora behera pareko den beste batez ordeztatu dela adierazten da. *Balioak* atributua bezala, ordeztapenak testuaren edozein mailatan topa daitezke, gramatika maila dela (pluralaren ordeztar singularra, adibidez) zein irakurleari eskaintzen zaion informazio kopurua dela –izan daiteke paragrafo bat edo paragrafo sorta bat beste batzuen ordeztar ematea itzulpenean–.
- **gehi:** *gehiakuntza* balioak erdarazko testuan jatorrizkoan agertzen ez den osagaien bat ageri dela adierazten du. Berritua ere gehiakuntzak hizkuntzaren maila guztietan zein literatura mailan ager daitezke eta horregatik mota edozein azpimotarekin joan daiteke.
- **ezab:** aurreko kasuaren alderantzizkoa da, hau da, euskarazko testuaren osagaien bat ezabatu dela adierazten du. Hau ere edozein azpimotarekin joan daiteke.
- **punt:** bertsio biren arteko puntuazio ezberdintasunak adierazteko motaren balio jakin bat zehaztu dugu. Aldaketan arrazoia, itxuraz, estilistikoa denez, mota=“punt”edun etiketari azpimota=“erret” dagokio, nahita nahi ez. Anbiguasuna saihesteko, puntuazio zeinua helmuga testuan aldatu denean baino ez da etiketatu.

2.3.2.3. Azpimotaren balioak

- **gram:** maila morfosintaktikoari dagozkion aldaketak azpimota=“gram” balioaren bidez markatzen dira, hala nola: jadanik aipatutako *singularretik mugagabera*, familiar-teko izenei posesiboa gehitzea, plurala singularraren ordeztar erabiltzea, edo aldaketa semantikorik egon gabe

15. Testutik ateratako adibideek ondoko formatoa dute: aipatutako testu osoa komatxoaren artean ageri da, aztertzen ari garen fenomenoaren duen zatia letra etzanaz, eta kapitulu zenbakia eta euskarazko/erdarazko testuetan dagozkion paragrafo zenbakia.

aditzaren denbora aldatzea. Normalean *gram* balioa seg etiketarekin batera agertzen da, perpausarena baino hedapen txikiagokoa da, eta edozein *mota* klase onartzen du.

- **lex**: lex balioaren bidez markaturiko kasuak hizkuntza batetik besterako hitz edo esapide ordezkapenak dira; esanahi antzekoa eta informazioa gehitu edo kendu barik (konnotazio ñabardurarik ere ez) helmuga testuan adierazpen guztiz baliokidea eman beharrean adierazpen sinonimoa ematen da horrelakoetan. *Azpimota*="lex"-en adibideak ditugu ondoko hauek: *verba dicendi* ordezkapenak edo gehikuntzak, helmuga testuan kuasisinonimo bat ematea, edo hiztegi mailakoak soilik diren eta lehenago aipatu ditugun *baliok* kasuak ere.
- **sem**: *lex* balioak ez bezala, *semek* testuaren edukian aldaketa egon dela adierazten du; sarri itzultzerakoan ñabarduraren bat gehitzen, kentzen edo aldatzen da. *Sem baliok* eta *puntekin* izan ezik *motaren* edozein baliorekin ere joan daiteke. Esaldia baino txikiagoa den unitatei dagokie, eduki ezberdintasuna sintagma baino unitate handiagoari dagokionean *infor* erabili da eta.
- **infor**: bertsio baten eta bestean aldaketa handiak daudenean *infor azpimota* erabili da.
- **prag**: testuen funtzio pragmatikoei dagozkien aldaketei *prag* balioaren etiketa jartzen zaie. Oso ohikoak dira ahozketasun markagailuak ordezkatu, gehitu edo ezabatzea, gizalegea dela eta ñabardura-aldaketak, eta arestian aipatutako aurreratze adibideak.
- **erret**: *azpimota*="erret"-en bidez estilistika, erretorika eta narratologia osagaien aldaketak adierazten dira. Testu bietan modu bere-berean ageri ez badira behintzat, erretorika-figurak (metafora, konparaketak, errepikapen estilistikoak, antitesiak eta abar) horrela markatu dira. Etiketa horrekin etiketatu dira baita narrazio ahotsari edo ikuspegiari dagozkion aldaketak: estilo zuzena agertu edo desagertzea eta ikuspegi aldaketak, besteak beste. Azkenik, arestian esan bezala, puntuazio aldaketa guztiei *mota*="punt" *azpimota*="erret" etiketa eman zaie.
- **erreg**: itzulpena egiterakoan batzutan erregistro aldaketak egon dira, batez ere maila neutro batetik lagunartekotasunera pasatu da. Gehienetan baliabide berdintsuak, baina ez literalki itzulgarriak, erabilita erregistro bera gorde da (aldaketa *baliok* da kasu horretan); batzutan erabilitako hizkuntza maila ez dator bat testu bietan (*ordez*, beraz).

2.3.2.4. Nonen balioak

Segmentu baten dagoen informazioa jatorrizkoan aurrerago aipatu dela edo geroxeago agertuko dela adierazi gura denean orain arte aitatu ez dugun beste atributu bat izan dezake erdal bertsioiko seg etiketak *azpimota*ren

ostean. *Non* atributua da; lehen aipatu bada informazioa *lehen* balioa darama eta geroago aipatuko bada *gero*. *Motaren* balioa *gehi* edo ezab denean eta *azpimotaren* balioa *sem* edo *info* denean baino ezin da agertu.

2.4. Arazoak eta konponbideak

Gure *corpusa* osatzen duten Unai Elorriagarren eleberriaren lehen bi kapituluetan etiketak ipintzerakoan arazoak sortu zitzaizkigun. Anitzak diren eta ñabardura asko izan ditzaketen fenomenoei derrigorrez zurrinak izan diren irizpide bat baino gehiago aplikatzeko aukera izateak ondorio bi ekarri ditu: testu osoari dagozkion ebatsiak hartu behar izan dira batetik eta, kasu jakinak direla eta, unean uneko erabakiak ere hartu behar izan dira.

Hola bada, etiketatze prozesuaren hasieran bertan arazo bat antzeman zen: gure interesa hizkuntza baten eta bestean modu ezberdinean agertzen ziren osagaietan zetzan, baina, hizkuntza biren arteko ezberdintasun estrukturala dela eta, ia ia osagai guztiak etiketatu behar ziren, “edukian baliokide, baina agerpen linguistiko ezberdina” zuten eta. Hau da, *baliok* bezala etiketatu behar zen ia dena. Adibide argi bi ipiniko ditugu: euskararen deklinabidea eta erdararen preposizioen erabilera edota *mugagabea* erabiltzea determinatzaile zenbatzaileekin eta erdararen pluralgilea erabiltzea baliokideak dira.

Agerian dagoenez, guzti horiek etiketatu izanak etiketa kopurua nabarmen handituko luke baina itzulpen prozesuan garrantzitsuak diren osagai *baliokideak* ezkutatuko lituzke eta gure helburu nagusitik urrunduko gintuzke. Gure helburua ez baita jatorrizko hizkuntza eta itzulitakoaren arteko ezberdintasun linguistikoa aztertzea baizik eta autore/itzultzaileak egindako lanari eta berak hartutako aukera atzerakoi (jatorrizkotik hurbilago) edo aurrerakoiei (gehiago sortuta itzulita baino) erreparatzea.

Hortaz, hartu dugun erabakia zera izan da: itzulpen literala dena (itzulpen posible bakarra) bertan behera uztea eta ez etiketatzea. Kasurako, euskararen partitiboak (“ez zuten *errekorrik* gainditu”) erdararen determinatzaile mugagabea (“tampoco batieron *ningún record*”, 1, 18/15) besterik ez dauka baliokide eta, beraz, ez da markaturik agertzen. Gauza bera gertatzen da “baino ez” > “sólo” edo erdararen “usted” tratamenduaren erabileraren¹⁶ kasuetan.

Horrela, *mota*=“ordez” *azpimota*=“*gram*”-en bidez etiketatu dira hizkuntzen arteko aldea dela eta ez, baizik eta autore/itzultzailearen erabaki libre eta kontzientearen ondorioz egindako aldaketa morfologiko edo morfosintaktikoak. *Baliok* bezala etiketatu dira, oster, edozein mailatan (*grametik pragera*) hizkuntzen distantzia dela eta dauden ezberdintasunak, baldin eta itzulitakoa posibilitate bakarra ez bada, edo beste modu batera esanda, jatorrizkoaren itzulpen literala ez bada, baizik eta itzultzaileak helmuga hizkuntzan erabili gura duen baliabide baliokidea.

16. Erdararen ‘usted’ eta ‘tu’ ez dira ezberdintzen gure korpusean, zuka besterik ez du erabiltzen eta.

Adibide batzuk ikus ditzagun: morfologia mailan sarrien agertzen dena determinatzaileak gabeko mendi izenak dira (“Kangche”, “Nanga Parbat”...); itzultzaileak bazuen artikulua barik uztea erdaraz: “A mí Kangche me ha tratado muy mal” (1, 67/46) o “vio las expediciones [...] a Nanga Parbat” (2, 47/43). Dena dela, erdaraz arruntagoa da mendi izenekin artikulua erabiltzea, artikulua gehitzeko erabakia (“el Kangche” o “el Nanga Parbat”) hizkuntzak mugatua ez dagoen arren.

Hiztegi mailan antzeko zer edo zer gertatzen da, mendizaletasunari buruzko terminologiari dagokionean, adibidez. Autoreak “zortzi milako mendiak” (1, 107/103) (paragrafo bertan geroxeago “zortzimilakoak” ageri da), “kanpamendu nagusia” (1, 11/12) edo “erantzun” eta “esan” (1, 12/13) helmuga hizkuntzan guztiz lexikalizatuta dauden terminoak erabiltzen ditu literalki itzultzaileak baztertuz, erdaraz hitz egokiagoa erabiltzeko. Horregatik erabiltzen ditu “los ochomiles”, “campamento base” eta “cambio”, “los montes de ocho mil”, “campamento principal”, eta “responde” edo “di” erabili beharrean.

Unean-unekeo erabakiak hartu behar izan dira, baita, testua itzulpen unitate baliokideetan banatzerakoan –auzi hau benetan zaila da itzulpen prozesuan aldaketa sakonak izan dituzten paragrafoetan–; erabaki dela eta, aldaketok zelan etiketatu behar genituen (*ordez*, *gehi*, *ezab*) aukeran zegoen eta.

Lehen arazoari dagokionez, arestian esan legez, ezinezkoa izan da testu osoan zehar itzulpen unitate egonkorra erabiltzea, ahal izan den neurrian behintzat, hitzaren mailan, eta ez morfemarenean, gelditu garen arren. Bestetik, testu batetik bestera aldatu barik irauten duten osagaiak agerian uzten saiatu gara, etiketa guztietatik kanpo ipiniz; aldatu diren osagaietan, baliokide diren segmentuak *id*-ekin lotu dira, bai hizkuntza bietan ideia edo ñabardura bera sumatzen delako bai eduki bera ez izanda ere funtzio bera betetzen dutelako.

Hizkuntza batetik besterako aldaketan jatorrizko testuan eta itzulpenean eskaintzen den informazioa bera ez denean, berriz, ez da *ordez* bezala etiketatatu aldaketa, baizik eta, informazioa galdu dela adierazteko *ezab* erabili da eta bere lekuan beste bat gehitu dela adierazteko *ezab*; beste modu batera esanda, osagai bat beste baten *ordez* eman dela interpretatu barik, osagai bat *ezabatu* eta beste bat ipini dela etiketatu da.

Adibide bat ematearren, 1, 60/56 paragrafoaren hasieran, Lucasek zera dio: “– Zure adina izango zuen aurreneko ikusi nuenean. Heladería Humboldt-en”; eta erdaraz “– Me acuerdo. En la Heladería Humboldt”. Enuntziatu birene artean ez informazio ez funtzio aldetik erlaziorik ez dagoenez, <seg id=“1” mota=“ezab”> etiketaren bidez etiketatu da erdarazkoan desagertzen den jatorrizkoaren lehen perpausa eta <seg id=“2” mota=“gehi”> etiketaren bidez jatorrizkoak ez dakarren erdarazkoaren lehen perpausa. Testu birene bigarren perpausa, oster, ez da etiketatu, inolako aldaketarik ez baitauka.

Etiketen balioen arteko aldea argi mugatzea ere ez da praktikan erraza izan, batez ere *azpimotaren* kasuan. Hori dela eta, hasieran ezarritako irizpi-

deak hobeto zehaztu behar izan ditugu eta, esan bezala, batzutan irizpideon arabera kasuan kasuko ebatsiak hartu behar izan ditugu.

Lehenengo eta behin, *azpimota*="lex" eta *azpimota*="sem"en arteko muga ez da beti agerikoa izan. Irakurleak gogoan izango duenez, honako honetan datza ezberdintasuna: *lexek*, hizkuntza biren artean, edukiari eragin ez eta adierazpen mailako aldea adierazten duen bitartean, *semek*, oster, helmuga testuan *ñabardura* semantikoren bat aldatu dela adierazten du. Dena den, batzutan irakurle bakoitzaren mundu-ikuskeraren arabera izan daiteke aldaketa batek informazioari eragitea ala ez.

Azter dezagun honako adibidea: "etxean geratzen ziren, *telebista ikusten*" > "se quedaban en casa *delante del televisor*." (2, 3/3) Edukia, zalantza barik, ezberdina bada ere ("telebista ikustea" eta "telebista aurrean egotea" ez dira gauza bera), gure mundu ikuskera dela eta, badakigu *telebista aurrean* jesartzen garenean *telebista* programaren bat ikusteko egiten dugula. Aldaketa, beraz, osagai bat beste batez ordezkatzea izan da (*ordez*), eduki bera gordeta (*lex*).

Beste batzutan eleberriaren testuinguruak, eta ez mundu-ikuskerak, bultzatu gaitu aldaketa bat *sem* beharrean *lex* bezala etiketatzea; testuinguru kontuan harturik, aldatu dena adierazpena dela, eta ez eskainitako informazioa, dakigu zenbaitetan. Besteak beste, familiarteko izen arrunten ordez izen bereziak erabili dituenen ("*neba*" eta "*arreb*a"-ren ordez "*Lucas*" eta "*María*") edo izenorde/izen sintagma aldaketak ("*honaino*" / "*hasta el hospital*", 1, 35/32) egin dituenen.

Arazoi beragatik, euskaratik erdarara subjektua esplizitu egin edo isiltzen denean eta eleberriaren elkarriketetan *verba dicendi* izeneko gehienak agertu, ordezkatu edo ezabatzen direnean *lex* etiketa eman zaie, orokorrean edukia ez da aldatzen eta.

Bestetik, *azpimota* atributuaren *sem* maila gorena eta *infor* balioa ere argi ezberdindu behar ziren. Izan ere, azken hori, hasierako azterketa burutu ostean sortu genuen, *sem* etiketak biltzen zituen hedapen ezberdinak kontuan harturik. *Sem* etiketa, *lexetik* ezberdinduz, edukia eta adierazpena biak aldatu direla adierazteko erabilita, izenlagun baten zentzuan aldaketa txikia egon dela zein paragrafo osoak ezabatu edo gehitu direla adierazteko balio zuen hasieran. Aniztasun hori ekiditeko sortu zen gerora *infor* balioa; informazio handia aldatu dela, behin betiko *semek* adierazten duen *ñabardura* txikia baino handiagoa, adierazteko, hain zuzen.

Edozein kasutan ere, ez da beti erraza gehitu den informazioa asko ala gutxi izan den zehaztea, ezta *ñabardura* txikia eta eduki guztiz ezberdinaren arteko muga non dagoen esatea ere. Irizpide erabat kuantitatiboa erabilita, sintagma baino handiagoa den aldaketa oro *infor* hartzea erabaki dugu. Horrela, ikus ondorengo lehen paragrafoa bigarrenaren ordez, 1, 39/36-ren ordez hain zuzen:

Y se deshizo. Pero solamente se deshizo un poco; se deshizo lo justo. Todavía mantenía sólida gran parte de las piernas y los brazos hasta los codos. Las manos se le movían caprichosa y arbitrariamente, pero conservaba la tranquilidad suficiente para escuchar al médico e incluso para entender lo que le iba a decir.

eta bekain-keinuz eskatu zion kontatzen hasteko eta, berririk txarrena izanda ere, botatzeko behingoz, jakingo zuela eusten, eta eskerrak eman zizkion, alde zurretik, medikuek eta erizainek merezi zituztelako eskerrak, eta kontu hura amaitzen zenean, zerbait eskatzu gero, bere eskuetan balego, egingo ziola. Eta hori guztia bekainez esan zion.

Agerian dagoenez, kasu horretan irakurleak ez du pertsonaiaren erreakzioari buruzko informazio bera jaso testu bietan eta, aldaketaren luzera eta informazio kantitatea kontuan harturik, *sem* ez markatzea zirudien egokiena. Dena dela, beti kuantifikazio hutsa erabiltzea ez da gomendagarria: batzutan gehikuntza luzeak egin dira baina ez informazio garrantzitsua gehitzeko baizik eta helburu estilistiko batez; fenomeno garrantzitsuena markatu behar zelako irizpidea dela eta, kasu horiek *erret*, eta ez *infor*, etiketatu dira. Ikus hurrengo zatia, pertsonaiaren pentsamendu kaotiko eta zirkularra, eta ez informazio berria, adierazteko erdarazko bertsioan gehituta:

María se quedó mirando a su hermano, *que pensaba, seguramente, en las olimpiadas y en las ciudades que habían tenido olimpiadas, y en las que no las habían tenido también, y en las que, pese a no haber tenido olimpiadas, tenían tranvía, etc.* (1, 36/34).

Kontrakoa ere ager daiteke, sintagma baino txikiagoa den osagaia *infor* hartzea, informazio garrantzitsua badago jokoan. 1, 78/63 paragrafoan ikus dezakegu horren adibidea. “Emplazaríamos el objetivo personal, *en forma, en cualquier caso, de búsqueda especializada*” zeraren orde: “bizitza inguratuko duen helburua ezarri beharko genuke: *ametsa*”. *Ametsa* izena kenduta, laburra izanagatik, elipsi eta konnotazio ugari galdu dira eta *sem* balioak ez dirudi nahikoa, batez ere erdarazko bertsioan *amets* edo idealaren ideia guztiz galdu dela kontuan harturik. Kasu hori *infor* etiketatu da.

Bestalde, fenomeno baten aldaketa maila bi egon direnean, garrantzitsuena etiketatu da; hau da, ordezkapen lexiko baten, kasurako, figura erretorikoa badago, figura markatuko da, gure azterketarako figura erretorikoa sinonimo batez berba bat ordezkatzeko baino garrantzitsuagoa da eta.

Esate baterako, *prag* eta *erregen* arteko muga ezartzea ez da erraza izan. *Pragen* bidez, diskurtso markagailu aldaketak eta leuntze (atenuazio) eta areagotze (intentsifikazio) pragmatikoak adierazi dira. *Erregen* bidez, berriz, hizkuntza erregistroari dagozkion fenomenoak markatu dira, eta bereziki, itzulpenean maila estandarretik (ez lagunarteko ez formal) urrundu denean. Batzutan, baina, markagailu batek funtzio biak betetzen ditu, hau da, erlazio pragmatikoa adierazten du eta, aldi berean, erregistroa markatzen du.


Kasu horretan, eta testu osoko etiketatzearen koherentziari begira, markagailuon balio pragmatikoari erreparatzeko erabakia hartu da; *erreg* etiketa lagunartekotasuna edo formalitatea baino ez dakarten kasuetarako erabili da. Horrela, *prag* balioa eman zaio datorren estilo zuzeneko zatian egin den markagailuaren gehikuntzari: “-¡Pero todavía en la cama...!” (1, 94/90); *Erreg* balioa eman da erregistro formala edo lagunartekoari dagozkion formak gehitu, aldatu edo ezabatzen direnean, hala nola, erregistro bera gordezkeko itzultzaileak egin duen “¡so vago!” / “alperrori” (1, 94/90) ordezkapen baliokidea, hau da baliabide baliokidea erabili denean hizkuntza bitan erregistro maila bera emateko.

Beste kasu batzutan, arestian azaldu legez, *erret* balioa gailendu zaie hain garrantzitsuak ez diren beste batzuei. *Inforen* kaltetan *erret* markatu den adibide bat jadanik azaldu dugu. Lexiko mailako aldaketak funtzio estilistikoa izan dezake, intentziodun errepikapena sortu edo kentzen bada, 1, 65/61 paragrafoan bezala: “Rosa, apur bat ikaratuta, *lotsati* altxatu zen eta *lotsati* egin zuen armairurantz, “ > “Rosa, un poco asustada, se levantó y fue hacia el armario”. *Lotsati* izenlaguna behin ezabatuta aldaketa semantikotzat har zitekeen, pertsonaiaren jarreraren ezaugarri deskriptibo bat baztertzen baitu; jatorrizko testuan birritan agertu eta itzulpenean behin ere ez agertzeak helburu estilistikoa dauka: figura erretoriko (errepikapena) baten ezabaketa; beraz, *mota*=“ezab” *azpimota*=“*erret*” etiketa eman diogu.

2.5. Adibideak

Atal honetan testuaren etiketatuaren benetako adibideak aurkeztu eta auzi arazotsuak erakutsi gura ditugu, etiketatu mota lehenengoz ikusten duen irakurlea prozesua nolako konplexua den konturatu dadin.

Lehendabizi, testuen egitura osoa, lehenengo euskarazko testuan (2. Taula) eta ondoren erdarazkoan (3. Taula).



2. Taula: Egitura-etiketen hierarkia, euskarazko testuan.

<pre><testu hizk="erd"> <kapitulu id="1"> <atal id="1" korresp="1" modu="narr"> <p id="1" korresp="1"> </p> </atal> </kapitulu> <kapitulu id="2"> ... </kapitulu> </testu></pre>
--

3. Taula: Egitura-etiketen hierarkia, erderazko testuan

Hurrengo adibidean paragrafo bakun samarra dago etiketatuta, zutabe bitan, argiago ikus dadin.

<p id="66">Lucas aldizkaria irakurtzen ari zen <seg id="1">, </seg> <seg id="2">ingurukoei</seg> kasu handirik egin gabe: </p>	<p id="45" korresp="66">Lucas estaba leyendo una revista <seg id="1" mota="punt" azpimota="erret"></seg> sin hacer demasiado caso <seg id="2" mota="ordez" azpimota="lex">a los demás: </seg></p>
---	--

4. Taula: Lerrokatuta etiketatutako testuaren adibidea.

Lehen begiratuan erdarazko testuan metadatu gehiago ageri direla eta euskarazkoen etiketek segmentu bakoitza itzulpenean dagokionarekin erlazionatzeko balio dutela antzeman daiteke. Adibide horretan etiketek -beltzago daude- erakusten dutena, ordena honetan, zera da: paragrafoaren hasiera, *id* zenbakia duela (eta *korresp* erdaraz); puntuazio-aldaketa bat, segmentu hartuta (*seg id*="1"), perpausa baino txikiagoa baita; eta ordezkapen lexikoa den bigarren segmentu bat (*seg id*="2"). Bigarren segmentua ordezkapen lexikoa da testuaren informazioari ez diolako inola ere eragiten, "a los demás" "ingurukoei"-ren ordezkari eman baitu.

Antzeko ezaugarriak dituen baina estilo zuzenean dagoen paragrafoa da honako hau:

<p id="61">-Badakit. </p>	<p id="57" korresp="61"><perts>-Ya lo sé. </perts> </p>
--	--

5. Taula: Estilo zuzeneko paragrafo baten adibidea.

Izan ere, bertsio biren arteko alde bakarra zera da: erdarazkoan ageri den *perts* etiketa, bere baitan dagoena pertsonaiaren ahotsari, eta ez narra-tzailearenari, dagokiola adierazteko erabilia.

Jatorrizko testuaren paragrafo bat baino gehiago itzulpenean paragrafo bakarrean ageri bada, horrela etiketatzen da:

<p id="40"><seg id="1">Aspertuta <seg id="2">nauka</seg></seg><seg id="3"></seg> <seg id="3">zuen</seg> nebak -esan zuen medikuak. <s id="1"></s></p>	<p id="37" korresp="40, 41"> <perts> <seg id="3" mota="ordez" azpimota="gram">-Tu hermano</seg> <seg id="1" mota="ordez" azpimota="lex"><seg id="2" mota="ordez" azpimota="gram">nos</seg> ha aburrido</seg> <seg id="3" mota="gehi" azpimota="lex">ya</seg></perts> -dijo el médico. <s id="1" mota="gehi" azpimota="infor">Sonrisa. </s> El aburrimiento <seg id="5" mota="ordez" azpimota="prag">será, </seg> <seg id="6" mota="gehi" azpimota="sem">posiblemente, </seg> el sentimiento <seg id="4" mota="ordez" azpimota="sem">más aceptable</seg> que pueda producir un enfermo.
<p id="41">Gaixo batek sor dezakeen sentimendurik <seg id="4">ederrena</seg> <seg id="5">da</seg> <seg id="6"></seg> asperdura. </p>	

6. Taula: Euskarazko paragrafo bi erdarazko baten baliokidea erakusten duen adibidea.

Ikus daitekeenez, kasu horretan ez da hasi jatorrizkoaren segmentuak paragrafo bakoitzaren hasieran zenbatzen. Bestela beste etiketa bat erabili beharko genuke programari paragrafo baten baliokidetasuna noiz amaitzen den eta noiz hasten den hurrengoa adierazteko.

Azkenik, bai idazleak egindako itzulpen prozesua bai, eta haren ondorioz, burutu dugun fenomeno ezberdinen etiketatua nolako konplexua izan den erakusteko ondoko adibide hau ekarri dugu.

<p id="107">

<seg id="1">Esateko</seg> <seg id="2">gauza inportanterik</seg> izango banu <seg id="3">sikiera. </seg> <seg id="4">Itzelak</seg> <seg id="5">kontatuko nituen</seg> <seg id="6">sasoi batean</seg>. <seg id="7">Gerran <seg id="8">eta. </seg></seg>Baina <seg id="9">gehienak</seg> ahaztu ditut. Batzuk ez, ze hor daude, <seg id="10">buruan, </seg> <seg id="11">oraindik ere. </seg> Gainera gutxi irakurri izan dut eta <seg id="12">horixe</seg> esaten da, ezta, <seg id="13">ondo idazteko</seg> irakurri egin behar dela, asko. Nik aldizkariak batez ere<seg id="14">. </seg> Mendi-koak<seg id="15">eta. </seg> <seg id="16">Zortzimilako mendiak</seg> maite ditut nik: <seg id="17">Shisha Pangma</seg> asko. <seg id="18"></seg>Txikiena da, 8027 metro, eta <seg id="19"></seg>ahoa <seg id="20">betetzeko moduko</seg> izena dauka. <seg id="21"></seg> <seg id="22">Mariak eta biok</seg> <seg id="23">askotan</seg> <seg id="24">ibiltzen gara jolas horretan, </seg> espedizioa egiten dugula <seg id="25">zortzimilako mendi</seg> batera eta irrati bidez hitz egiten dugula. <seg id="26">Atsegina da, </seg> batzuetan. Ez bazaizkizu oinak izozten <seg id="27">behintzat. </seg><seg id="28"></seg> Nik <seg id="29">zortzimilakoak</seg> maite ditut. <seg id="30">Shisha Pangma</seg>, eta <seg id="31">Nanga Parbat, </seg> ere bai. <seg id="32">Shisha Pangma</seg><seg id="33">, </seg> gaiztoa da. Jende asko hil du. <seg id="34">Eta</seg> <seg id="35">K2k</seg> ere bai. Baina <seg id="36">K2ren</seg> izena ez zait gustatzen<seg id="37">;</seg> hain txikia, hain zientifikoa. <seg id="38">Annapurna</seg> bai, eta <seg id="39">Lhotse</seg> eta <seg id="40">Manaslu</seg> ere bai, baina gutxiago. Mariak <seg id="41">asko</seg> irakurri izan du beti. Gela bat dauka liburuz beteta eta ohe batekin eta besaulki batekin. Bastoia ere asko maite dut. Eta horregatik uzten nuen

<p id="103" korresp="107">

Si tuviera <seg id="3" mota="ezab" azpimota="prag"></seg><seg id="2">algo importante</seg> <seg id="1">que decir. </seg> <seg id="6" mota="ordez" azpimota="sem">De joven</seg> hubiera <seg id="5" mota="gehi" azpimota="sem">podido</seg> contar <seg id="4" mota="ordez" azpimota="lex">cosas. </seg> <seg id="7" mota="baliok" azpimota="gram">De la guerra</seg> <seg id="8" mota="ordez" azpimota="sem">y de antes. </seg> Pero he olvidado <seg id="9" mota="ordez" azpimota="lex">casi todas. </seg> Algunas no, porque están ahí, <seg id="10" mota="ordez" azpimota="sem">dando vueltas. </seg><seg id="11" mota="ezab" azpimota="lex"></seg> Además yo he leído poco y <seg id="12" mota="baliok" azpimota="prag">eso es lo que</seg> se suele decir, no, que para <seg id="13" mota="gehi" azpimota="sem">aprender a</seg> escribir hay que leer, mucho. Yo sobre todo revistas<seg id="14" mota="punt" azpimota="erret"></seg> de monte. <seg id="15" mota="ezab" azpimota="sem"></seg> A mí me gustan <seg id="16" mota="baliok" azpimota="lex">los ochomiles:</seg> <seg id="17" mota="baliok" azpimota="gram">el Shisha Pangma</seg> mucho. Es el más pequeño <seg id="18" mota="gehi" azpimota="lex">de los ochomiles, </seg> 8.027 metros, y tiene un nombre <seg id="20" mota="ordez" azpimota="lex">que llena</seg> la boca <seg id="19" mota="gehi" azpimota="lex">al decirlo. </seg> <seg id="21" mota="gehi" azpimota="erret">Shisha Pangma. </seg> <seg id="22" mota="baliok" azpimota="gram">María y yo</seg> <seg id="24" mota="ordez" azpimota="lex">solemos jugar</seg> <seg id="23" mota="ezab" azpimota="lex"></seg>a ese juego, a que hacemos una expedición a un <seg id="25" mota="baliok" azpimota="lex">ochomil</seg> y a que hablamos por radio. <seg id="26">

<seg id="42">aroztegiko</seg> <seg id="43">atea</seg> zabalik ia beti. Haizea <seg id="44">zebilenean</seg> ez. Bastoia Angelek oparitu zidan. Hil egin zen gero. Itsasgizona zen Angel. Segundo oficial. Inteligentea. <seg id="45"></seg><seg id="46"></seg> Baina aroztégia maite zuen eta inbidia apur bat <seg id="47">ere ba</seg> zuen. <seg id="48">Hemen</seg> zegoenetan <seg id="49">tailerrera</seg> <seg id="50">biltzen zen</seg> ni <seg id="51">baino sarriago. </seg> Eta kon-tatzen zidan nolako neskak, han, Austral-ian. <seg id="52">"Baina ez pentsa, Rosa bezalakorik ez". Liburuetan baino gehiago ikasi nuen Angelekin. </seg>Orain itxia <seg id="53">omen</seg> dago aroztégia<seg id="54">;</seg> <seg id="55">egun eguzkitsuetan</seg> ere bai. Handik pasatu ere ez dut egin nahi. <seg id="56"></seg><seg id="57">Lizun-duta</seg> <seg id="58">omen</seg> dago <seg id="59">atea. </seg> Kuku-erlojua ere <seg id="60">asko</seg> maite dut. Behin baino ez da gelditu<seg id="61">:</seg> <seg id="62">aita</seg> hil zenean. Bueno, <seg id="63">aita</seg> <seg id="64">hil eta astebetara</seg> <seg id="65"></seg><seg id="66"></seg> baina<seg id="67">, </seg> Mariak esa-ten duen moduan, <seg id="68"><seg id="69">gozoagoa</seg> da horrela esa-ten bada:</seg> <seg id="70">aita</seg> hil zenean gelditu zen kukua. <s id="1">Ze esateko moduak asko balio du Mariaren ustez. </s></p>

mota="ordez" azpimota="lex">Está bien, </seg> a veces. Si no se te congelan los pies, <seg id="27" mota="ezab" azpi-mota="lex"></seg> <seg id="28" mota="gehi" azpimota="infor">o las manos, o los dedos de las manos, que es lo más común. </seg> A mí me gustan <seg id="29" mota="baliok" azpimota="lex">los ochomiles. </seg> <seg id="30" mota="baliok" azpimota="lex">El Shisha Pangma, </seg> y también <seg id="31" mota="baliok" azpimota="lex">el Nanga Parbat. </seg> <seg id="32" mota="baliok" azpimota="lex">El Shisha Pangma</seg><seg id="33" mota="punt" azpimota="erret"></seg> es malo. Ha matado a mucha gente. <seg id="34" mota="ezab" azpimota="lex"></seg> Tam-bién <seg id="35" mota="baliok" azpi-mota="gram">el K2. </seg> Pero el nombre <seg id="36" mota="baliok" azpi-mota="gram">del K2</seg> no me gusta<seg id="37" mota="punt" azpi-mota="erret">, </seg> tan pequeño, tan científico. <seg id="38" mota="baliok" azpimota="gram">El Annapurna</seg> sí, y <seg id="39" mota="baliok" azpi-mota="gram">el Lhotse</seg> y <seg id="40" mota="baliok" azpimota="gram">el Manaslu</seg> tam-bién, pero menos. María siempre ha leído <seg id="41" mota="ordez" azpimota="sem">más que yo. </seg> Tiene una habitación llena de libros y con una cama y con un sillón. También me gusta mucho el bastón. Y por eso dejaba abiertas <seg id="43" mota="ordez" azpi-mota="gram">las puertas</seg> <seg id="42" mota="ordez" azpimota="lex">del taller</seg> casi siempre. Cuando <seg id="44" mota="baliok" azpimota="lex">había</seg> viento no. El bastón me lo regaló Ángel. Luego se murió. Ángel era marino. Segundo oficial. <seg id="45" mota="gehi" azpimota="lex">Era</seg> inteligente <seg id="46" mota="gehi" azpimota="lex">Ángel. </seg> Pero le gustaba la carpintería y <seg id="47" mota="ordez" azpimota="prag">tenía</seg> un poco de envidia. Cuando estaba <seg id="48"

	mota="ordez" azpimota="sem">en tie- rra</seg> <seg id="50" mota="ordez" azpimota="lex">iba</seg> <seg id="51" mota="ordez" azpimota="lex">más</seg> que yo <seg id="49" mota="ordez" azpi- mota="lex">a la carpintería. </seg> Y me contaba qué chicas, allí, en Australia. <seg id="52" mota="ezab" azpimota="infor"></seg>Ahora <seg id="53" mota="baliok" azpimota="lex">creo que</seg> está cerrada la carpintería<seg id="54" mota="punt" azpimota="erret">. </seg> También <seg id="55" mota="ordez" azpi- mota="lex">cuando hace sol. </seg> No quiero ni pasar por allí. <seg id="58" mota="baliok" azpimota="lex">Creo que</seg> están <seg id="56" mota="gehi" azpimota="sem">medio</seg> <seg id="57" mota="ordez" azpimota="sem">podridas</seg> <seg id="59" mota="ordez" azpimota="gram">las puertas. </seg> También me gusta <seg id="60" mota="ezab" azpimota="sem"></seg>el reloj de cuco. Sólo se ha parado una vez<seg id="61" mota="punt" azpi- mota="erret">. </seg> Cuando murió <seg id="62" mota="baliok" azpimota="gram">nuestro padre. </seg> Bueno, <seg id="64" mota="gehi" azpi- mota="lex">el reloj se paró</seg> al de una semana de morir <seg id="63" mota="baliok" azpimota="gram">nuestro padre</seg> <seg id="65" mota="punt" azpimota="erret">, </seg> pero<seg id="66" mota="punt" azpimota="erret"></seg> como dice María, <seg id="67" mota="ordez" azpi- mota="lex">decirlo así es como decirlo con más <seg id="68" mota="ordez" azpi- mota="sem">cariño</seg></seg>: el cuco se paró cuando se murió <seg id="69" mota="baliok" azpimota="gram">nuestro padre. </seg> <s id="1" mota="ordez" azpimota="sem">María dice que hay for- mas y formas de decir. </s></p>
--	---

7. Taula: Etiketatutako konplexuaren paragrafoa erakusten duen adibidea.

3. PROGRAMA

3.1. Sarrera: informatikari eta filologoak lankidetzan

Filologo eta informatikariek proiektu hau burutzeko, eta zehazkiago esanda, tresna informatikoa diseinatzeko, egin dugun jakintza-alor anitzeko lankidetzak Deustuko Unibertsitatean 2004ko apirilaren 22an I. Ikerlari Gazteen Jardunaldiaren mahai inguruan azaldutakoa da¹⁷:



8. taula: Tresna informatiko-filologikoak garatzeko jakintza-alor anitzeko lankidetzak

Irudian ikus daitekeenez, filologoak azterketa egiten du eta sistemaren betebeharrak zehazten ditu; informatikariak tresna garatzen eta mantentzen du, behin filologoak oniritzia emanda. Hortaz, lankidetzak estua dago eta alde biek funtzio garrantzitsua dute prozesuan. Programa hausnarketa filologiko sistematizatuetatik sortu da eta ingeniariak informatika-arloan gauzatu dituzte; gainera, programak dituen tresnak ez ezik, leihoak eta taulak nola agertu behar diren, testua zuhaitz-eran edo etiketarik gabe eman behar diren erabakitzeko ere filologoak eta informatikariak elkarlanean aritu dira. Atal honetan programaren deskripzioarekin batera programa zelan dabilen erakusten duten irudiak bildu ditugu.

3.2. Programaren diseinua

Etiketatuaren bidez testu bietan sartutako metadatoak interpretatu eta erabili ahal izateko, datuok modu erraz eta egingarrian erabiltzeko erakutsiko dituen informatikako programa diseinatu zen.

Kasu honetan aurreko esperientzia batetik abiatu gara: Deustuko Unibertsitatean Carmen Isasi eta Joseba Abaitua irakasleen zuzendaritzapean burutu diren bi ikerketa. Batetik, Patricia Fernández filologoak (2003) “Pre-

17. Mahai ingurua filologo eta informatikarien arteko lankidetzari buruzkoa izan zen eta honako izenburua izan zuen: *Paradigmas de colaboración informático-filológicos*. Irudia Fernando Quintana (Deustuko Unibertsitateko doktoregaia) ingeniari informatikariak sortu eta aurkeztu zuen bertan.

paración de una edición digital bilingüe de *Il Romulo* de Virgilio Malvezzi traducido por Teodoro dell' Aula para su estudio sintáctico-retórico” izenburudun tesi lan teknofilologikoa; bestetik, *FiloTyC* izeneko programa garatzeko Carlos García Martínez eta Sergio Taboada Platas ingeniari informatikoei burututako “Procesamiento de textos multilingües anotados en XML para su edición digital” (2003) ikasketa amaierako ikerketa lana. *FiloTyC* programaren 1. 0 bertsioetik 2. 0 bertsioa garatu dute informatikariek artikulu honetan aurkeztu den ikerketarako, etiketatze eta hemengo behar jakinetarako, egokituta.

3.3. Programaren deskribapena


Programaren menu-barraren bidez erabiltzaileak nahi dituen baldintzetan bilaketak egin ditzake. Lehendabizi, *Artxiboa* menuaren bidez kontsultatu nahi diren fitxategiak lortu daitezke. Fitxategiok XML lengoaiari etiketatuta eta DTD (*Document Type Definition*) bati lotuta eta horren arabera sintaxia aldetik aztertuta egon behar dute, programa datuok errekonozitzeko gai izan dadin. Betebehar horiek beteta, programa prozesatzeko eta behar dugun informazioa emateko gauza izango da.

Gainera, lehenago erabilitako artxiboa berriro zabaltzen uzten du programak eta aukera hori oso erabilgarria da programa itxi ostean berriro lanean hasteko. Irekitako testuak denak batera zein banan-banan itxi daitezke. Artxiboak kargatuta dituenean –hizk atributuaren bidez identifikatuta dagoenez, programak badaki zein hizkuntzatan dagoen testu bakoitza–, erabiltzaileak Leiho menuaren bidez aukera dezake testu bakarra ikusi pantailan ala testu bat baino gehiago, pantaila horizontalki, bertikalki, zein kaskadan banatuta.


Testuak zuhaitz-eran ere ikus daitezke, *Tresnak* menua erabilita. Horrela, goitibeherako eskema-eran ikus daiteke testuaren hierarkia, XML artxibo bat interneteko nabigatzailearen bidez zabaltzen denean ikusten den antzeko eran. Aipatutako aurreko aukeretan ez bezala, kasu horretan etiketatua esplizitu ageri da, bai lerrotatze unitateen banaketan (grafikoki hasierako hizkia da ordezkari: *K* kapitulu adierazteko, *A* atalerako, *P* paragraforako) bai aldatuen markaketan (*Z* zati, *P* perpausa, *Sg* segmentu, *Perts* pertsonaia, eta abar).

Gainera, programan etiketen edukia letra arruntaz datorren bitartean, testua beltzago dator, irakurketa erraztuz. Datuak ikusteko modu hau oso erabilgarria da testua zein etiketen hierarkizazioa ikusteko eta, baita, zuzenean testua ikusi ahal izateko, bestela XML formatudun testua zuhaitz-eran erakutsita ez badago, oso konplikatu suertatzen da testuaren irakurketa.


Programaren oinarritzkoen eta garrantzitsuena den aldeari dagokionez, informazioa ateratzeko tresnei dagokienez hain zuzen, modu osagarri bita-koak dira: batetik, estatistikak emateko tresnak eta bestetik emandako irizpideen araberrako testu zerrendak ematekoak.




9. Taula: Artxiboa menua zabalik.



10. Taula: Bertikalki antolatutako testuak.




11. Taula. Testua zuhaitz-eran



12. Taula. Bertsio bietan dagoen paragrafo kopurua. Estatistikak.

Lehen aukerak, *Estatistikak*, zenbaki absolutuetan eta ehunekoetan ematen ditu testu biei buruzko datuak. Arestian esan bezala, menuak erabilia datu zehatzak lor daitezke. Kasurako, lehen hurbilketa baten testuen egiturari buruzko datuak atera daitezke, testu osoa, estilo zuzena baino ez edo kapitulu bakoitza azter-eremu hartuta: paragrafo, atal eta kapitulu kopurua.

Gainontzeko estatistikak bertsio biren arteko konparaketari dagozkio, hau da, itzulpen prozesuan sortutako aldaketari. Berrirori ere, erabiltzailearen esku dago, bere interesen arabera, aukerak egitea: goitibeherako menuan edozein etiketa (*zati*, *p*, *seg*, eta abar) erakutsi daiteke testu osoan, estilo zuzenean edo kapituluak; lehen aukeraketa hau egiten denean, beste pantaila batek hiru atributuak (*mota*, *azpimota* eta *non*) kontuan hartuta aztergai ditugun fenomeno guztiak erakusten ditu, nahi dugun konbinazioan aukera ditzagun.



13. Taula. *Estatistikak* menua zabalik


14. Taula. Datu estatistikoak ateratzeko fenomeno-aukeraketa egiteko leihoa.

Programak, aukeratutako fenomenoaren kopuru absolutuaz gain, aukeratu dugun fenomenoaren barruan dauden guztiak zerrendatzen ditu; hau da, tesuaren ezab guztiak eskatuta, programak ezab guztien kopurua emango digu lehenbizi, eta gero azpimota eta non tipo guztiekiko konbinaketan kopuruak. Gainera, programak aztergai dugun fenomenoaren garrantzi erlatiboa baloratu dezagun laguntzen diguten bi portzentaje ere ematen dizkigu: portzentaje batek azpikategoria bakoitza eta aukeraturiko kategoriaz kopuru osoa konparatzen ditu, eta besteak kategoriaz eta azpikategoria bakoitza, batetik, eta testu osoan agertzen diren fenomeno guztien kopurua, bestetik.

Datuak ikusi eta aztertzeke beste informatikako baliabidea zerrenda da. *Tresnak* menuaren bidez lortzen dira fenomeno-zerrendak. Goitibeherako menuak erabilia, ikusi nahi diren fenomenoaren ezaugarriak aukera daitezke, *Estatistikak* menuarekin gertatzen den bezalaxe. Hemen ere estilo zuzenean baino gertatu ez diren fenomenoak atera daitezke, menuan bertan horretarako ageri den botoia aukeratuta.

Eskatutakoa taulan agertzen da eta zutabeek ondorengo ordenan eskaintzen dute informazioa: aztergai dugun fenomenoaren ematen den kapitulu zenbakia eta euskarazko testuan duen atal eta paragrafo zenbakia; euskarazko testua; kapitulu, atal eta paragrafo zenbakia erdarazko bertsioan; eta erdarazko testua. Fenomenodun testu zatia hizkuntza bietan beltzago agertzen denez, errez erka daitezke jatorrizko testua eta itzulpena. Gainera, ezabaketa edo gehikuntzaren bat egotekotan izartxo beltzagoak ageri dira osagai horrek egon beharko luken lekuan.

Azkenik, estatistikekin gertatzen den bezala, bisualizazio hauek denak .html motako artxiboan esportatzeko aukera dago, taularen azpian dagoen *Gorde honela* botoia erabilia.



15. Taula. Zerrendak ateratzeko fenomeno-aukeraketa leihoa.

4. EMAITZAK

4.1. Emaitzak orokorrak

Deskribatu dugun programa erabilia lortu ditugun emaitzetaz zenbait ohar orokor egin nahi ditugu lehengo eta behin. Hasteko, etiketatutako unitateak (paragrafoak, paragrafo baino handiagoko zatiak, segmentuak eta perpausak) 972 dira. Etiketatutakoa jatorrizko testutik itzulpenera aldatu dena denez, itzulpenean aldaketa ugari egin direla azpimarratu behar dugu.

Bertsio bateko eta besteko datuak konparatzen baditugu, eta testu-zatiketa handiagoenekin hasita, jatorrizko bertsioan eta erdarazko bertsioan dagoen paragrafo kopuru ezberdina azpimarratu behar dugu. Lehenak 199 dituen bitartean itzulpenak 174 baino ez ditu. Erdarazkoan agertzen ez diren 25etik, 21 guztiz ezabatu dira eta gainontzeko 4ak jatorrizkoaren biren parekoak dira –erdarazkoaren 28. paragrafoa jatorrizkoaren 29 eta 30. paragrafoen baliokidea da, eta erdarazkoaren 37a euskarazkoaren 40 eta 41. en parekoa. Horrezaz gain, beste 7 paragrafoen itzulpenean aldaketak (*ordez*) egon dira: 5 ordezkapenek helburu erretorikoa izan dute, 1en edukia (*infor*) aldatu da eta beste baten adierazpena aldatu da baina esanahia ez (*lex*). Aldaketa erretorikoak batez ere ataletako izenburuetan gertatzen dira: “Lucasen ariketa” > “Lucas. Ejercicios”; edo “Mariaren ipuina” > “María. Ficciones”. Joera hau eleberriaren izenburuan bertan antzeman daiteke: *SP-rako Tranbia* > *Tranvía en SP*.

Etiketaturako zatiak (*zati*) eta perpausak (*s*) asko ez direnez (1 eta 14, hurrenez hurren), seg-ak baino ez ditugu aztertuko, markaturako fenomenoaren %80 (guztira 954 segmentu) izanda, horiek autoitzulpen prozesuari buruzko ondorioak atera ahal izateko esanguratsuak dira eta.

Maizen agertzen direnak zera dira: hizkuntzen arteko ezberdintasunak direla eta, motibatuta ez daudenak, baizik eta autore/itzultzaileak hala nahi izanda. Etiketatuen artean 78 besterik ez dira *baliokide* edo hizkuntza aldeak

eragindakoak. Hizkuntza biren arteko aldeak eragindakoak ez direnen artean, sarrien agertzen direnak aldaketa borobilak (*ordez*) dira: testu osoan 395 (segmentu-ordezkapenak 380 dira, perpaus-ordezkapenak 8 eta paragrafo-ordezkapenak 7), fenomeno guztien %35. Bestetik, gehikuntza gehiago daude ezabaketak baino, baina aldea ez da handia (215 segmentu gehituta eta 163 ezabatuta, gehi 5 perpaus gehituta eta 1 ezabatuta, eta 19 paragrafo dituen zati 1 ezabatuta). Puntuazio aldaketak ere ugariak dira (118).

Aldaketa orokor hauek (ordezkapenak, gehikuntzak, ezabaketak eta puntuazio-aldaketak barne) hiru taldetan sailkatu daitezke: batetik, edukiari eragin ez baina adierazpen-mailan gertatzen direnak; bestetik, eduki eta adierazpen mailako aldaketak; eta azkenik, estiloan eragin zuzen eta agerikoa duten aldaketak. Lehen sailean *azpimota gram* eta *azpimota lex*-en bidez etiketatutakoak daude; bigarrean informazioa edo ñabardura semantikoren bat gehitu, ezabatu edo aldatzen dutenak (*azpimota*=“*sem*” eta *azpimota*=“*infor*”); eta hirugarrenean erretorika, pragmatika eta erregistro mailako aldaketak (*azpimota*=“*erret*”, “*prag*” eta “*erreg*”), fenomeno guztien %30, 76.

4.2. Eraitza zehatzagoak

4.2.1. Baliokideak

Erregistro mailako baliokideak gutxi dira: 1, 79/75 “*horixe parranda egin duzuen*” > “*-Vaya juerga ¿no?*”. Ez *erret* (erretorika) ez *infor* (informazioa) mailako baliokidetasuna ez dugu topatu, eta pragmatika mailakoak (*prag*) lau baino ez eta denak kasu berekoak dira: *eso+ ser aditza+lo que egitura horixe-ren orde*.

Gram azpimota baliokidetasunei dagokionez, 2.3 atalean jadanik aipatu ditugu batzuk, etiketen deskripzioa egiterakoan. Batez ere, familia-izenen itzulpenean posesiboa gehitu da: 1, 70/66 “*nebari*” > “*a su hermano*”; edo mendi-izenetan: 1, 100/96 “*Annapurna*” > “*El Annapurna*”; beste kasu batzutan: 1, 107/103 “*Mariak eta biok*” > “*María y yo*” edo 1, 107/103 “*orain itxita omen dago*” > “*Ahora creo que está cerrada*”.

Lex azpimotari dagokionez, sarreran esan dugun legez, helmuga testuan lexia konplexuen egokitzapenak (1, 12/11 “*kanpamentu nagusia*” > “*campamento base*”) eta hizkuntza bietan dauden esapideak (1, 112/108 “*leporatzen didate*” > “*me echaba en cara*”) eta jatorrizko hizkuntzan baino ez daudenak (2, 8/7 “*pare-pearean*” > “*justo delante*”) sartu ditugu. Azken kasu honetan, jatorrizko bertsioan aldakortasuna dago eta horren adierazle da beste forma hau: *ate-atean / en la misma puerta*.

Sail berean daude helmuga hizkuntzan ohikoak diren adierazpen egokitzapenak (1, 107/103 “*Zortzimilako mendiak*” > “*los ochomiles*”) eta eguraldiari buruzkoak (itzulpenean aldakortasuna erakutsiz: 1, 67/63 “*Haizea zebilean*” > “*Cuando hacía viento*”, baina 1, 107/103 “*Haizea zebileanean*” > “*Cuando había viento*”).

4.2.2. Ordez

Aldaketa borobilen (*ordez*) artean, 157 ordezkapen lexiko (*azpimota*=“*lex*”) daude, 119 semantikoak (*azpimota*=“*sem*”) dira, 43 erretorikoak (*azpimota*=“*erret*”), 35 gramatikalak (*azpimota*=“*gram*”), 17 erregistro mailakoak (*azpimota*=“*erreg*”) eta pragmatikoak eta *inform* oso gutxi (5 eta 4 hurrenez hurren).

Ordezkapen horiek, kasu gehienetan behintzat, itzultzaile/idazleak, beste barik, jatorrizko testutik aldenduz, egin ditu. Esate baterako, ordezkapen semantikoetan: 1, 3/3 paragrafoan “pastilla berdeak, horiak, *hori-gorriak*” eta erdaraz “pastillas verdes, amarillas, *rojiblancas*”; 1, 6/6 paragrafoan “Etorriko da; gaur ez bada *etzi*, *etzi* ez bada...” > “Ya verás, va a venir, si no es hoy, *el día de San Nicolás*, *si no es el día de San Nicolás*...”; baita, kapitulu beraren 51/47 paragrafoan “Atea *malenkoni*az zabaldu zen” > “La puerta se abrió *con pereza*” eta “Hogei urteko neska zen” > “...una chica *joven*”.

Fenomeno horiek mota ezberdinetan sailkatu daitezke. Kasu batzutan aldaketak xehetasunen baten galera dakar: 1, 65 / 61 paragrafoan “*eskuineko eskua sabelpetik erantzi...*” > “separó por fin *una mano del cuerpo*...”; eta 75 / 71. paragrafoan “*Eskuineko zapata...*” > “...se quitó *un zapato*...”. Beste batzutan, ostera, erdaraz xehetasun gehiago antzematen da: 1, 62/58 paragrafoan “Badakizu *hirurogei urteko gizon bat...*?” > “Y ya sabes que un *suizo...*?”; 2, 83/54 paragrafoan “...baina ez *arkupeko plazakoak*” > “...pero no *las de San Nicolás*”.

Deigarria da baita intentsitate handiago edo txikiagoko osagaia erabiltzea beste baten ordez, adjektiboetan (“oso *ederrak*” > “*bonitos*”, 1, 111/107), zein aditzondo edo aditzondo-esapideetan (*barrez* > *a carcajadas*, 1, 37/34).

Beste ordezkapen batzuk ere aipatu behar ditugu: ezker/eskuin aldaketak: “*eskuinekoa* janzten ziotenenean, *ezkerrekoa* eranztzen zuen *Lucasek*” > “cuando le ponían el calcetín *izquierdo* se ponía *el derecho*” (1, 103/99); oso sarri ageri diren zenbaki aldaketak: “*hirurogei urteko gizon bat*” > “un suizo de *sesenta y un años*” (1, 63/58); leku-aldaketak: “*izarapera*” > “*en la cama*” (1, 75/71), “*hemen*” > “*en tierra*” (1, 107/103), “*auzoan*” > “*en la calle*” (2, 19/16), “*hall*” > “*casa*” (2, 30/34); senide-ordezkapenak: “*aitite*” > “*padre*” (1, 111/107); *verba dicendi* ordezkapenak, gehienetan ñabardura esanguratsuren bat gehitu edo ezabatuz: “*aitortu Lucasi*” > “*decirle a Lucas*” (1, 65/61). Horiekin batera, aleatorio diruditen beste batzuk topatu ditugu: “*kalefakzioak*” > “*aparatos de aire acondicionado*” (2, 2/2).

Informazio-aldaketak (4 *azpimota*=“*infor*” daude) ere sartu daitezke, hau da, sintagma edo perpaus bat ordezkatuta eduki aldetik aldaketa nabarmena dagoenean, kasurako: “Erizainak *barre* egin zuen.” > “La enfermera le *dio otras, las que ella quiso*” (1, 5/5). Itzultze-unitatea auzitan dago horrelako kasuetan, arestian esan bezala: pentsa dezakegu ordezkapen hutsak direla baina baita idazleak informazioa ezabatu eta ezberdina den beste bat gehitu duela. Ezabaketei buruz berba egiterakoan adibideak ikusiko ditugu.

Ordezkapen *lexikoen* artean, esanahi bereko *verba dicendien* kasuak dauz-kagu batetik: “–Rosa ez –azaldu zion” > “–Rosa no –dijo” (1, 74/78). Bestetik, subjektuari (edo objektuei, beste kasu batzutan) erreferentzia egiterakoan, tes-tuinguru zabalagoa kontuan harturik, ordezkapen lexikoak egin dira: adibidez, “...sartu zuen hemen *anaiak*.” > “*Ángel* metió aquí...” (1, 65/61).

Baina agian deigarriena zera da: hizkuntza batetik bestera sinonimo borobila izanda ere, hori aukeratu beharrean kuasisinonimoa hautatzen denean. Adibidez, “Lo, *usteldu* arte, egin behar zuela ematen zuen.” > “pare-cía que iba a dormir hasta *desintegrarse*” (1, 8/8), “Bastoaia egin eta gutxira...” > “Después de *terminar* el bastón...” (1, 65/61), eta abar. Kasuo-tan “pudrir” eta “hacer” hartu beharrean, autore/itzultzaileak beste batzuk aukeratu ditu, agian eufonia aldetik hobeto datozkiolako.

Baina literatura-lan baten itzulpenaren azterketan, erretorika mailan (*azpi-mota*=“erret”) gertatu diren aldaketak garrantzi handikoak dira. Izan ere, lite-rario hutsak diren aldaketak daude itzulpenean, besteak beste: “...zetazko nortasun harekin.” > “...con esa personalidad suya *de goma de borrar*.” (1, 45/41), “Ikatz da *infernuko* pintura.” > “El carbón es una pintura *sin educa-ción*.” (2, 55/84). Hau da, metafora bat erabilita ere, itzulpenean beste hiz-kuntza-adierazpen bat aukeratu du Elorriagak zenbait kasutan.

Beste batzutan helmuga testuan irudi bat dago eta jatorrizkoan ez, meta-fora dela (“Eta *oporretan* zeuden *umeak* etxean geratzen ziren” > “y los niños-vacación se quedaban en casa”, 2, 3/3), beste figura mota bat dela (paragrafo berean “Eta hirugarren egunean, bertan jarraitzen zuen *euri-giro horrek, kalean eguzkia* zegoen arren.” > “Y al tercer día, aunque *en la calle* era sol ya, el color lluvia seguía dentro.”). Guztira, erdarazko testuan erreto-rika mailako 43 aldaketa aurkitu ditugu.

Azkenik, pragmatika mailako aldaketak gutxi dira eta erregistro mailakoe-kin batera aztertu daitezke, batez ere ahozko diskurtso-markagailuen orde-zkapenak dira eta.”Eta *horixe*, ama haserretu egiten da” > “Y, *claro*, mi madre se enfada” (1, 108/112).

Azpi-mota=“erreg”en bidez markatutakoen artean: “*Estimatzen* zuela esan zien” > “les dijo que *gracias*” (2, 6/5), “*Nik baino* hobeto idazten du aitak.” > “Lo bien que escribe mi padre.” (2, 79/64) eta “Lehenengo egunetik *moldatu ginen*.” > “Nos *arreglamos* desde el primer día.” (2, 82/53). Geroago ikusiko dugunez, aldaketok batez ere estilo zuzenean gertatu dira.

4.2.3. Gehikuntzak

Ordezkapen edo aldaketa borobilen ostean sarrien dagoen fenomeno *gehi-kuntza* da. Seg *mota*=“*gehi*”ren artean (testu osoan 215) asko, 56, gehi-kuntza kuasisinonimikoak dira: itzultzaileak subjektua edo *verba dicendi* esplizitu utzi ditu edo aditzaren egintza modulatu du. Edozein kasutan ere, garrantzi txikiko berridazketak dira horiek.

Esanguratsuagoa da itzulpenak testu-gehikuntza dakarren kasua: 38 ñabardura semantiko (*azpimota*="sem") eta 44 (*azpimota*="infor") sekuentzia gehitu dira erdarazko testuan. Besteak beste: "Maria gelara sartu zen, aurpegi serioz***¹⁸." > "María entró en la habitación seria y rápido." (1, 94/90); "Bigarren solairuan *** luzaro egon zen Lucas..." > "En el segundo piso (*primer campamento*) Lucas se quedó..." (2, 19/16); "...aitari koaderno harrapatzen badiot***." > "...si consigo coger su cuaderno para demostrar que escribe mejor que yo y que gracias a él tengo yo esta afición." (1, 112/108); "Futboleat ona***." > "Matías era el mejor al fútbol y conducía tranvías." (2, 23/20); guztira, 82 adibide daude.

Gehikuntzaren atalean ere sail berean sar ditzakegu helburu pragmatikoa daukaten gehikuntzak (28 guztira) eta erregistro mailakoak (12). Gogora dezagun *azpimota*="prag" markatutako fenomeno gehienak ahozko diskurtso markagailuak direla eta horiek erdarazko testuan ahozko erregistroa indartzen dutela. Erregistro mailako fenomenoek ere lagunartekotasuna adierazten dute eta horrexegatik azalduko ditugu batera.

Ahazkotasunaren sail honetan autozuzenketa egiteko edo zalantza adierazteko markagailuak daude, askotan enuntziatu kolokial bat atzean dutela: "Kabiara ekarri didate gaur ***" > "Hoy me han traído caviar creo que era" (1, 23/22) edo "Baina ***." > "Pero no sé yo." (2, 79/64). Baita solaskidearekiko lotura indartzeko markagailuak ere: "*** Ekingo al diogu gailurrari?" > "¿Qué? ¿Atacamos la cumbre?" (2, 26/23); "–Horixe parranda egin duzuen. ***" > "–Vaya juerga ¿no?" (1, 79/75).

Apaindura baliabide erretorikoak gehitzean datzaten gehikuntzak bestelakoak dira. Laginean aurkitu ditugun 36 gehikuntza erretorikoen artean ondoko figura erretorikoak daude:

- Anplifikazioak, ondoko adibidean errepikapen sinonimikoarekin batera: "deskantsatzen nago apur bat***" > "Ahora estoy descansando un poco. *En esta posada o mesón*". (1, 71/67)
- Errepikapenak: "Ez dut uste, Lucas, bihar, etzi, beharbada ***." > "No creo, Lucas, mañana igual, o pasado mañana *igual*" (1, 19/18); anaforak: "Rosa ikusten zuelako tranbiara igotzen, *** tranbiatik jaisten, *** bere ondoan eserita, *** tranbiako pasilloan..." > "Porque el tranvía era Rosa subiendo al tranvía, Rosa bajando del tranvía, Rosa sentada con él, Rosa en el pasillo" (2, 23/20).
- Metonimiak: "... jolasten zebiltzan *** ..." > "*En la calle se oían las vacaciones de los niños y...*" (1, 15/14). (Figura berbera euskarazko bertsioan 1, 9an agertu eta erdarazkoan kendutako paragrafoan dago).

¹⁸. Gogora dezagun izartxoek ezabatutako edo gehitutako osagaia non egongo litzatekeen adierazten dutela.

- Konparaketak, oso esanguratsuak gainera: “elkarrekin haserretzea ***” > “enfadarse el uno con el otro, como se enfadan las suegras y *Algún que otro yerno*” (1, 37/34); “Hemen kanpamentu nagusia, esan –erantzun zion Lucasek *** irribarre gaixoz, arreba ezagutu zuela adieraziz” > “Aquí campamento base, cambio -dijo Lucas, *hablando como hablaría un enfermo que estuviera simulando hablar por radio, en el Shisha Pangma, en la pared sudoeste.*” (1, 12/11); “Gozo begiratu zion nebari ***. Ospitaleetan azukrezkoak dira begirada guztiak; egi-ten duen beroagatik edo erizainek egin behar dutena ondo dakitelako. Azukrezkoak izaten dira begirada gehienak ospitaleetan.” > “María se quedó mirando a su hermano, *que pensaba, seguramente, en las olimpiadas y en las ciudades que habían tenido olimpiadas, y en las que no las habían tenido también, y en las que, pese a no haber tenido olimpiadas, tenían tranvía, etc.*” (1, 36/33); “Leihotik, ume baten oihua entzun zuen***” > “Se oía a un niño en la calle pidiendo chocolate a gritos, con ansiedad, *como se pide un médico en un desembarco*” (1, 43/39); “Eta barrez lehertzen hasita zeuden***” > “Se rieron como se ríen los bolígrafos de las notaría, los que escriben los precios.” (1, 75/71) Azken gehikuntzan ironia argia ere badago.
- Enumerazioa: “Heriotzaz pentsatu zuen apur bat orduan. ***” > “Entonces pensó un poco en los cementerios y en los panteones. *Y en las gominolas de menta.*” (1, 50/46); “Begi grisek ez zituzten bide bazterreko etxe laukizuzen haiek ezagutzen, ***” > Los ojos grises no se acordaban de aquellas casas marrones, *ni de las rojas, ni de las blancas*” (2, 10/9).
- Paradoxa: “***” > “Lucas sabía que se les podía pedir un favor en cualquier momento, *por mucho que estuviesen muertos*” (2, 10/9).
- Pertsonifikazioa: “–Ez zuen haizeak botako. ***” > “No creo que se la haya llevado el viento. *No quiere para nada el viento nuestra casa.*” (2, 15/13).

Eta beste figura erretoriko batzuk ere bai. Ironia: “***” > “y subió los diez peldaños con rapidez y soltura” (2, 27/24); hiperbolea (maila sikiko eta fisikoa kontrajarrita): “***” > “Y se deshizo. Pero solamente se deshizo un poco; se deshizo lo justo. Todavía mantenía sólida gran parte de las piernas y los brazos hasta los codos. Las manos se le movían caprichosa y arbitrariamente, pero conservaba la tranquilidad suficiente para escuchar al médico e incluso para entender lo que le iba a decir.” (1, 39/36).

4.2.4. Ezabaketak

Gehikuntzetan azaldutako fenomeno berberak ezabaketetan ere ageri dira, testu osoan 163 kasu, hain zuzen. Sarrien agertzen direnak ezabaketa lexikoak dira (51 kasu); 3 gramatikalak dira. Segmentu horietako gehienek subjektua, objektua edo *verba dicendi* jatorrizko testuan agerian eta itzulpe-

nean isilduta daudela adierazten dute. Kasu hori batez ere pertsonaiaren baten parte hartzearen ostean suertatzen da:

“-Zer? -Mariak.” > “-¿Qué? ***” (1, 17/16); “Kabiarra ekarri didate gaur- *erantzun zion* Lucasek serio.” > “Hoy me han traído caviar creo que era -*** Lucas serio.” (1, 23/22); “Horrexegatik gustatzen zaizkit *niri...*” > “Por eso me gustan *** más...” (2, 77/62).

Informazioa ezabatzen duten fenomenoak ere asko dira, bai hedadura eta garrantzi txikikoak (*azpimota*=“*sem*”), 48 hain zuzen, bai *informazio* etiketaren bidez markaturikoak (*azpimota*=“*infor*”), 36 kasu. Azken hauen artean, *gehikuntzak* azaltzerakoan aurkeztutako batzuk daude, itzulpenean adierazpen eta zentzuan guztiz aldatu diren enuntziatu batzuk, ezabaketa + *gehikuntza*, eta ez *ordezkapen*, hartzea erabaki genuen eta. Ikus ditzagun testuinguru zabalagoan adibide batzuk:

Garrantzizko zerbait esan behar ziola barruntatu zuen Mariak, *eta bekain-keinuz eskatu zion kontatzen hasteko eta, berririk txarrena izanda ere, botatzeko behingoz, jakingo zuela eusten, eta eskerrak eman zizkion, alde z aurretik, medikuek eta erizainek merezi zituztelako eskerrak, eta kontu hura amaitzen zenean, zerbait eskatuz gero, bere eskuetan balego, egingo ziola. Eta hori guztia bekainez esan zion.*

María sospechaba que el médico le iba a decir algo importante sobre Lucas. Y se deshizo. Pero solamente se deshizo un poco; se deshizo lo justo. Todavía mantenía sólida gran parte de las piernas y los brazos hasta los codos. Las manos se le movían caprichosa y arbitrariamente, pero conservaba la tranquilidad suficiente para escuchar al médico e incluso para entender lo que le iba a decir. “ (1, 39/36)

Adibide horretan, euskeraz kurtsibaz ageri den testua ezabaketa da eta erderazkoa gehikuntza. Itzulitako atala, bere osoan hartuta, jatorrizkoarekiko guztiz berria da; erdarazkoan deskripzio hiperbolikoa dago gainera, ondokoan bezalaxe: “Mariak begiak altxatu eta gela behatu zuten. Airea ere garbi zegoen, lixibatuta.” > “María alzó la vista y era verdad. ***. La habitación tenía más *lejía* que cemento.” (1, 83/79).

Bai *infor* kasuak bai *sem* azpimotako ezabaketak maiz oso deigarriak dira, itxuraz inongo motibaziorik ez dute eta. Ikus hurrengoak: “Lucasek *klorofilako* txiklearen kolorea ikusten zuen hormetan.” > “Lucas veía las paredes de color chicle ***” (1, 1/1); “Ekingo al diogu gailurrari? *Zain daukagu Shisha Pangma*” > “-¿Qué? ¿Atacamos la cumbre? ***” (2, 26/23).

Ezabaketa batzuk intentsitate edo ñabardura kuantitatiboei dagokie, kasurako: “*zeharo* poztu zen Lucas” > “se alegró ***” (1, 49/45); “Etxean lagun *handi* bat daukat” > “Tengo un *** amigo en casa” (1, 108/104); “*Hotz handiegia* dago Himalayan sits batentzat” > “el Himalaya es *frío* para una polilla” (2, 82/53).

Bestetik, azaltzen oso zailak diren 11 figura erretoriko aurkitu ditugu. Ezabaketok *erret* motako gehikuntzekin konbinatu daitezke eta, beraz, testua

berriro guztiz landu dela argi dago. Arestian aipatu dugun adibide bat oso adierazgarria da: “Tranbia zeukan Lucasek gogoan. Rosa ikusten zuelako tranbiara igotzen, tranbiatik jaisten, bere ondoan eserita, tranbiako pasilloan... *ia beti tranbian.*” > “Lucas se acordaba del tranvía. Porque el tranvía era Rosa subiendo al tranvía, Rosa bajando del tranvía, Rosa sentada con él, Rosa en el pasillo ***.” (2, 23/20).

Adierazgarria baita ondokoa: “Euren postontzia oka egiten ari zen: *gutun-en laurdenak kanpoan zuen gorputz erdia. Heysel futbol zelaiko eszena eman zuen.* Bankuko sobreak eta publizitatea batez ere” > “La ambulancia les dejó en la misma puerta de casa. El buzón del portal estaba sudando; *** las cartas querían huir, volver a la oficina de correos o llegar hasta donde tenían que llegar, pero no querían estar en un buzón. En un buzón tan falto de intimidad y sosiego, además. Sobre todo las cartas del banco y la publicidad de fajas. Por eso sacaban los brazos por la ranura. Alguna había caído al suelo, muriendo en el acto. Tan urgentes las presintieron Lucas y María que no cogieron ninguna.” (2, 17/14).

Ezabaketa pragmatikoei dagokienez, kasuak banan-banan aztertu beharko lirateke, paragrafo berean berekin batera dauden gehikuntza eta ezabaketekin erlazionatua dauden ikusteko, orokorrean hartuta konpentsazioa egon daiteke eta. Adibidez, hurrengo ezabaketak: *eta* (1, 107/103, 112/108, 113/109), *horixe* (1, 112/108, 113/109) edo *ere* (1, 107/103).

4.2.5. Puntuazio aldaketak

Puntuazio aldaketak erretorikoak direla erabaki genuen hasieratik, hizkuntza batetik bestera itzultzerakoan beharrezkoak ez dira eta. Enuntziatuak berriro idazterakoan sortutakoak dira eta aldaketok azaldu ahal izateko testu bietako sintaxia aztertu beharko genuke.

Dena den, azterketaren hastapenetan baino ez gauden arren, sarri agerzten diren aldaketak antzeman ditugu: puntuaren ordezkari erabiltzea, batez ere hitz-tarte aurretik (“ohean, hankak dilindan” > “en la cama. Las piernas colgando” (1, 97/93); “oroitzapenak topatzen ditugu, ederrak” > “una barbaridad de recuerdos. Algunos bonitos” (1, 111/107), o la supresión de puntos suspensivos: “Burua dauka apur bat...” > “La cabeza es lo que.” (cap. 1, p. 1, 47/43).

4.2.6. Estilo zuzena: aldaketak

Itzultzailearen *modus operandi* ezagutzeko garrantzi handikoa da beste kontu bat: estilo zuzenean sortu diren aldaketen garrantzia. Erabili dugun metodoa dela eta, ezin dugu zehazki jakin aldaketa horien banaketa kuantitatiboa. Etiketatuan pertsonaien ahotsak ezberdindu ez direnez, ezin dugu aztertu pertsonaia bakoitzaren estiloa, ezta elaberriaren egiturarekin daukaten erlazioa ere. Pertsonaien parte hartzea markatzeko etiketa bat (<perts>)

erabili dugu eta atributu bat (*modu*="perts") pertsonaien parte hartzea diren zatiak identifikatu ahal izateko, elkarriketan dela zein bakarriketan dela. Horri esker jakin dezakegu *prag* edo *erreg* aldaketa (ordezkapen, gehikuntzak edo ezabaketak) gehienak estilo zuzenean dauden pasarteetan gertatzen direla eta gainontzeko fenomenoak zehar estiloan zein zuzenean jazotzen direla. Aztertu ditugun aldaketen estatistikak XX tauletan laburbilduta daude.

Mota	Testu osoan	Estilo zuzenean
Edozein aldaketa	50	37
<i>Ezabaketak</i>	13	12
<i>Ordezkapenak</i>	5	1
<i>Gehikuntzak</i>	28	22
<i>Baliokideak</i>	4	2

18. Taula: Aldaketa pragmatikoak (*azpimota*="prag")

Mota	Testu osoan	Estilo zuzenean
Edozein aldaketa	34	29
<i>Ezabaketak</i>	1	1
<i>Ordezkapenak</i>	12	12
<i>Gehikuntzak</i>	17	13
<i>Baliokideak</i>	4	3

19. Taula: Erregistro mailako aldaketak (*azpimota*="erreg")

Pragmatika eta erregistro mailako aldaketok estilo zuzeneko pasarteetan gertatzen dira ahozketasun-markagailuei dagozkielako gehien bat. Bestetik, eta aurrekoekin kontrajarrita, *erret* markaturiko 208 segmentuetatik 86 baino ez daude estilo zuzeneko pasarteetan.

5. AZKEN ONDORIOAK

Orri hauetan zehar erakutsi dugunez, lan honek helburu bi uztartu ditu: batetik, helburu nagusia, metodologikoa, informatika-baliabideak erabiltzea azterketa linguistiko-literarioa egiteko, eta bestetik, Unai Elorriaga autoitzul-tzaileari hurbilketa egitea.

Hasieratik argi ikusi genuen experimentu hau egiteko aukeratu dugun lanari deskribatu dugun metodologia aplikatzea oso zaila izango zela. Bate-tik, testuak lerrotatzerakoan berehala konturatu ginen, zati batzuen ordena eta paragrafoen hedadura ezberdinagatik erdarazko eleberria itzulpen estua ez zela. Bestetik, XML sistemaren bidez etiketatzea oso konplikatua izan da,

itzulpen prozesua bera den bezain konplikatua. Beraz, zailtasun bi hauek gogoan izanik, lehen ondorio bezala planteatu behar da antzeko lanen baten prozedura berbera berriro egitekotan erabilitako irizpideak hobetu behar direla.

Izan ere, jatorrizko eta helmuga testuak lotzen dituen erlazio tipoek zera eskatzen dute, nahita nahi ez: itzulpen unitatearen segmentazio malguagoa, hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan sarri gurutzatzen diren ordezkapen, gehikuntza eta ezabaketa sarea unitate handiagoetan osatzen duen unitatea, hain zuzen.

Bestetik, etorkizunean atributuak pilatuta etiketa konplexuagoetan egin liteke markazioa eta horrek datu konbinatu aberatsagoak ezagutaraziko lituzke.

Ondorio filologikoei dagokienez, gogora dezagun azter-lan hau Unai Eloorriagaren autoitzulpenaren azterketarako hurbilpena besterik ez dela. Heda-pen eta denbora arrazoiak direla eta, azterketa egiteko diseinatu den programak eman ditzaken emaitza guztiak ez dira arakatu.

SPrakotranbia-ren erdarazko bertsioak izenburuan ere itzulpen literala ez izatea idazle/itzultzailearen *modus operandi*ren adierazle da. Argi dago eus-kara eta gaztelera oso egitura ezberdineko hizkuntzak direna, baina distantzia linguistikoa ez da testu biren arteko aldearen eragilea: izan ere, “baliokide” etiketatu ditugun aldaketak gutxi dira eta garrantzi txikikoak.

Dena dela, bertsio biren testu-ezberdintasunak arakatuta, askotan itzulpen literaletik urrun gaudela argi ikusten da. Ezberdintasunok testuaren zati-ketari dagozkio, paragrafoen banaketa zein puntuazio-zeinuen erabilerari.

Illo horretatik, itzulpen prozesuan antzematen den askatasunak eduki mailako osagaiak berriro lantzea eraman du autoitzultzailea. Askotan xehe-tasunak aldatzeko erabili da: azterketa kuantitatiboak erakutsi bezala, *ordez* etiketa gehienek *lex* eta *sem* azpimota erlazioak adierazten dituzte, gehi-entan aldaketa txikiak –zenbaki ezberdinen aipamenak edo erdararen lexema kuasisinonimoa erabiltzea euskararen pare-parekoa erabili beharrean.

Gehikuntza eta ezabaketei buruzko ondorioak antzekoak dira, nahiz eta horietan aldaketa garrantzitsuagoak aurkitu ditugun: 44 sekuentzia *gehi infor* etiketatuta eta 36 *ezab infor* etiketatuta. Edo beste modu batera esanda, perpausa baino handiagoko aldaketak edo paragrafoaren zentzu orokorra aldatuta.

Itzulpenaren alde honek, edukiaren alde semantikoko aldaketa edo modulazioak, testuen lerrokatzea egin genuenean atera genuen ondorioare-kin bat datorren beste batera garamatza: helmuga testua ez da mugatzen jatorrizkora, idazleak idazketa etengabe lantzen aritu baita eta ez itzultzen soilik; idazlearen aldaketak egiteko motibazioak eta egin dituen aukerak ez dira etiketatzaileontzat beti begi-bistakoak izan, 4. atalean esan dugunez.

Horregatik, 6. atalean dakartzagun idazle/itzultzaileak berak idatzitako hausnarketak oso interesgarriak dira.

Erret, prag eta *erreg* fenomenoei dagozkien kasuetan, aldaketaren zergatia argiago egiten zaigu. *Erret* mailakoetan, figura erretorikoak ezabatu dira batzutan; askotan gehitu edo berriro landu da baliabide tipo hori. Gure azterketa oso murritzua izanda ere, beste ondorio argi bat atera dezakegu: bai jatorrizko testuan bai itzulpenean metaforak zein ironiak (eta apaindura-baliabideak oro har) garrantzi handia daukatela. Ildo horretatik, azterketa hau eleberri osoan ez ezik idazle beraren beste batzutan ere egin beharko litzateke Unai Elorriagaren estiloa hobeto ezagutzeko.

Pragmatika edo erregistro mailan etiketatutako erlazioei dagokienez, eleberraren egitura narratiboak lagunarteko erregistroa beharrezko egiten duten hainbat elkarrizketa eta pertsonaien bakarrikzeta zati ahalbidetzen ditu. Ez dugu ahaztu behar holako kasu gehienak estilo zuzenean agertu direla. Itzultako testuan pragmatika eta erregistro mailako bi osagai hauek berriro landu izanaren arrazoa zein den galdetu diogu geure buruari: ahozketasuna adierazteko erregistro aldetik neutroagoa izan daiteken euskara batuan baino baliabide gehiago ditu idazleak erregistro mailako aldakortasun markatuagoa daukan gaztelera erabilia? Ala, beste barik, ahozketasuna hobeto lantzeko denbora eta aukera gehiago izan ditu bigarren aldiak?

Amaitu aurretik, ezin dugu aipatu gabe utzi gaztelarazko testuan erabilitako egitura sintaktiko batzuk euskarak eragindakoak ematen dutela: “un jolgorio es esto”, “a punto de ir a la universidad estuvo” eta abar. Baina ez dago eleberria diatopikoki kokatzen edo pertsonaien jatorriaren berri ematen duen erreferentziarik. Ez dakigu kasu hauek nahita eginda dauden ala Elorriagak aukeratu dituen berarentzat hurbil eta ezaguna den erdararen ahozko diskurtsoaren adierazleak direlako.

Eta azkenik, bada, azterketa metodoak, hobetzeko zer aldatu dagoen arren, lagin txiki hau erabilia erdarazko testuan beste eleberri bat dagoela, eta ez itzulpena, erakusten digu.

6. IDAZLEAREN IRITZIA¹⁹

Itzultzaileak zoratzeko joera izaten du

Lehendabizi, gustatuko litzaidake barkamena eskatzea nire nobela txiki hau (*SP-rako tranbia* / *Un tranvía en SP*) aztertzen denbora ugari xahutu duten langileei. Izan ere, datu argi bat daukagu hasteko: lehenengo kapitulu bietan 972 aldaketa topatu dituzte bertsio biak alderatzean. Kontuak atera. Eta, horrezaz gai-

19. Ondoren, euskarazko eta erdarazko bertsioan, datozen orrialdeak Unai Elorriagak berak idatzi ditu. Lan honen egileek eskerrak eman gura dizkiogu gure ondorioei bere iruzkinak gehitzeagatik.

nera, kontuan hartzen badugu ordenagailuz idatzitako 20 orrialde baino ez direla, edonork ulertuko du zergatik eskatzen diedan barkamena.

Testu hau idazten ari naiz egin dizkidaten galderak erantzuteko asmoz. Aztertzailleok izan dituzten zalantza batzuk, ordea, ezin izango ditut argitu; izan ere, aldaketa asko literatur senari kasu eginda burutu ditut, beharrian linguistikoak alde batera utzita. Hau da, azalpenak emanda ez nintzateke neure burua konbentzitzeko gai izango eta beste inor konbentzitzea miraria litzateke.

Galdetu didate zergatik aldatu ditudan atalen izenburuak. Esate baterako: “Mariaren ipuina” / ‘María. Ficciones’. Edo: “Lucasen ariketa” / ‘Lucas. Ejercicios’. Oker ez banago, “Mariaren ipuina” itzuli nuenean egin nuen aldaketa. ‘El cuento de María’ idatzi nuenean, hitzez hitzezko itzulpena, haur literatura etorri zitzaidan gogora. Eleberrian, erabilitako estiloa dela-eta, oso presente dago haur hizkera, eta ez nuen atalen izenburuetan efektua errepikatu nahi. Gauzak horrela, beste literatura mota bat ekarri nuen burura eta Jorge Luis Borgesekin gogoratu nintzen. Bere ipuin-liburu bat etorri zitzaidan gogora: *Ficciones*. Kontrako efektua zen. Horixe zen lortu nahi nuena. Ondoren, asimilazioari esker, ‘Lucas. Ejercicios’ itzuli nuen.

Aztertzaileen beste zalantza bat puntuazio aldaketei buruzkoa da. Testu bakoitzak erritmo propioa dauka. Hizkuntza bakoitzak erritmo propioa dauka. Gaztelaniaz erlatibozko esaldi mordoa lotu daiteke eta irakurleak ez du inongo eragozpenik izango testua ulertzeko. Bestela da euskaraz. Horrek ez du esan nahi, baina, euskarazko narratiba beti ere esaldi laburrekoa izango denik. Ez: hizkuntza bakoitzak erritmo propioa dauka, eta balantzak alde batera edo bestera egingo du une jakin bakoitzean. Kasu bakoitzean, narrazioaren parte bakoitzean, bere buruari galdetuko dio idazleak zer behar duen. Are gehiago: hizkuntza berean ere idazle desberdinek erantzun desberdinak hartuko dituzte arazo berdinen aurrean.

Estilo zuzenean dauden aldaketei buruzko zalantza bat ere bada. Esan didate gaztelaniaz xehetasun gehiago dagoela, zenbait kasutan sintaxia ez dela ohikoa (ez da ohikoa hizkuntza idatzian, jakina), eta abar. Gaztelaniaz eman dizkidate adibideak, aski argiak: “un jolgorio es esto” (1. kap.), “a punto de ir a la universidad estuvo” (2. kap.) edo “tenía el cuerpo derecho yo entonces” (2. kap.).

SP-rako tranbia (*Un tranvía en SP*) nobelan ahalegin handia dago ahozko hizkuntza literatur hizkuntza bihurtzeko. Idazteko orduan, beharbada, horrek eman zidan lanik handiena. Hala ere, uste dut merezi izan duela eta nire idazkeraren ardatzetako bat dela. Baina zergatik xehetasun gehiago gaztelaniaz?, zergatik kirititzen da horrenbeste sintaxia gaztelaniaz? Erantzuna soila da: gero eta konbentzituago nago ahozkotetasunak ekarri handia egin diezaiokeela literaturari. Gero eta zalantza gutxiago daukat. Normala da, gainera: *SP-rako tranbia* idatzi nuenean, zalantzak nituen; ez nekien noraino heldu nintekeen. Seguruenik, gaur berriro idatzi beharko banu, indar handiagoa emango nioke puntu horri. Eta horixe da arrazoa: prosa mota horretan daukadan konfiantza. Hori dela-eta, gaztelaniazko itzulpena egin nuenean (*Un tranvía en SP*) areagotu egin zen erabilera hori. Eta berriro areagotu zen *Van’t Hoffen ilea* idatzi nuenean. Eta berriro ere *El pelo de Van’t Hoff* itzuli nuenean. Eta tontorrik altuenera heltzen ari da orain idazten ari naizen hirugarren nobelan, *Vredaman* izenekoan.

Figura literarioetan dauden aldaketez ere galdetu didate: “zetazko nortasuna” ‘personalidad de goma de borrar’ bihurtzen da edo “ikatzia da infernuko

pintura” ‘el carbón es una pintura sin educación’. Bide beretik, figura batzuk desagertu egiten dira gaztelaniaz (“ospitaleetan azukrezkoak dira begirada guztiak”, esate baterako).

Hori izango da, ziurrenik, azaltzeko punturik zailena. Egileari burura datorkion lehenengo itzulpena honakoa da: ‘personalidad de seda’ edo ‘el carbón es la pintura del infierno’ edo ‘en los hospitales todas las miradas son de azúcar’. Niretzat, ordea, ez da gauza bera “infernua” eta “infierno”, “azukrea” eta “azúcar”, “zeta” eta “seda”. Zergatik? Hori da erantzuten ez dakidan galdera. Nire literatura kultura desberdina delako euskaraz eta gaztelaniaz?, nire gizarte-kulturagatik?, hizkuntzen historia desberdinagatik?, hizkuntza bietan hitz horiek izan duten prozesu desberdinarengatik –guztiak ere latinetik datozen arren–?, hitz horiek euskal ahozko literaturarekin daukaten harremanagatik? Ez dakit. Kontua da ez nintzela gauza bera esaten ari gaztelaniaz eta euskaraz (ez xehetasun guztiekin behintzat). Gaztelaniaz irakurtzen zuenarengan inpresio bera utziko banuen, goitik behera aldatu behar nuen figura (eta zenbaitetan desagerrarazi ere bai). Eta orduak eta orduak ematen nituen figura berriak topatzeko, eufonia aldetik antzekoak eta irakurlearengan zirrara bera utziko zutenak.

Baina beste alde batetik, figura batzuk aldatu eta beste batzuk ezabatu arren, ikerketan ateratako ondorioek diote elaborazio erretoriko handiagoa dagoela gaztelaniaz euskaraz baino. Egia da. Normala da, hala ere, idazle batek antzina idatzitako testu baten aurrean jartzen denean berregiteko joera izatea. Ideia berriak izango ditu, irudi diferenteak sartzeko ahalegina egingo du... Eten-gabeko zuzenketa hori liburua inprentatik irteten denean amaituko da. Argi dago, baina, egileak aukera izango balu liburua bera zuzentzeko, inprentatik atera eta gero ere, dudarik gabe egingo lukeela. Eta aldatu egingo luke. Eta gauzak gehituko lituzke. Eta beste batzuk kendu. Eta nik horixe bera egiteko aukera eduki dut. Hizkuntza desberdinetan, hori bai. Baina lehenengo gaztelaniaz idatzi eta gero euskarara itzuliko banu, gauza bera egingo nuke.

Esan dudan guztia argiago ikusteko eta komentario honekin amaitzeko, bada pasadizo berezi bat Álvaro Cunqueiro izeneko idazle galiziarri buruzkoa. Ez dakit guztiz benetakoa izango den, baina egokia da gauza asko azaltzeko. *Merlín e familia* liburuak, Cunqueiroren lanetako batek, arrakasta handia izan zuen galegoz, eta egileari berari proposatu zioten liburua gaztelaniara itzultzeko. Itzuli egin zuen Cunqueirok, baina gauza batzuk zuzendu eta beste berri batzuk gehitu zituen, jakina (uste dut kapitulu berriak sartu zituela). Urte batzuen buruan, liburua berriro galegoz argitaratzeko eskaintza egin zioten. Cunqueirok gaztelaniazko bertsioa hartu, hura itzuli eta elementu berriak gehitu zituen. Amaierarik gabeko prozesua, beraz. Eskarmentu hori ikusita, eskertuko nuke inongo editorek ez eskaintzea niri, urte batzuk barru, *SP-rako tranbia* nobelaren berrargitalpena. Zorazteza ere ez da kontua. Izan ere, lehendik ere badaukagu horretako joera.

Para traducir hay que sentarse en una silla

En primer lugar, me gustaría hacer llegar mis más sinceras disculpas a los sufridores que han derretido una parte de su tiempo en analizar las dos versiones de mi novelita *Un tranvía en SP* (*SP-rako tranbia*). Hay un primer dato significativo: en los dos primeros capítulos han encontrado 972 cambios de la versión en euskara a la versión en castellano. Ni más ni menos. Si tenemos en cuenta que estamos hablando de, exactamente, 20 páginas a ordenador,

cualquiera entenderá por qué les llamo sufridores a los que un día, sin saber las varas que tenía la camisa donde se estaban metiendo, decidieron comparar las dos versiones de la novela. Cualquiera entenderá también por qué les pido disculpas.

Escribo estas líneas para tratar de aclarar las dudas que me han hecho llegar. Muchas de las preguntas que me hacen, sin embargo, quedarán sin respuesta, ya que la motivación de los cambios está más cercana a la intuición literaria que a una necesidad lingüística. Es decir, no sería capaz de construir una explicación que llegase a convencerme a mí mismo; convencer a otros sería un milagro.

Me preguntan por qué cambian los nombres de los pasajes que cierran los capítulos (“Mariaren ipuina” / ‘María. Ficciones’ o “Lucasen ariketa” / ‘Lucas. Ejercicios’). El cambio empezó, creo recordar, al traducir “Mariaren ipuina”. ‘El cuento de María’, la traducción literal, me traía a la memoria la literatura infantil. Ya el estilo utilizado en varios pasajes de la novela era intencionadamente infantil, y no quería remarcar ese efecto con los títulos de los pasajes. De esa manera, empecé a recordar otro tipo de literatura y me vino a la cabeza Jorge Luis Borges y su libro de cuentos: *Ficciones*. Era exactamente el efecto contrario. Era exactamente lo que quería conseguir. Después, por asimilación, llegó ‘Lucas. Ejercicios’.

Otra duda que me hacen llegar se refiere a los cambios de puntuación. Cada texto tiene su ritmo. Cada lengua tiene su ritmo. En castellano se pueden encadenar un montón de oraciones de relativo sin que el lector tenga que releer el texto. En euskara no. Esto no quiere decir, en cambio, que la narrativa en euskara siempre vaya a ser de frases cortas, de periodos minúsculos. No: cada lengua tiene su ritmo, y la balanza vencerá a un lado o a otro en cada momento. En cada caso, en cada parte de la narración, el escritor se preguntará qué es lo que le conviene. Incluso habrá escritores que en una misma lengua opten por soluciones diametralmente opuestas.

Otra de las dudas habla de los grandes cambios que se aprecian en el estilo directo. Abarcan varios ámbitos: mayor matización en castellano, sintaxis no habitual (no habitual en lengua escrita, claro)... Los ejemplos son claros: “a punto de ir a la universidad estuvo” (cap. 2), “un jolgorio es esto” (cap. 1), “tenía el cuerpo derecho yo entonces” (cap. 2).

En *Un tranvía en SP* (*SP-rako tranbia*) hay un esfuerzo muy grande para convertir la lengua hablada en lengua literaria. A la hora de escribir el libro fue quizá lo que más trabajo me supuso, pero creo que merece la pena y que es uno de los elementos centrales de mi manera de escribir. No obstante, ¿por qué más matización en castellano?, ¿por qué en castellano se retuerce la sintaxis hasta tal punto? Porque cada vez estoy más convencido de lo mucho que aporta la oralidad a la literatura. Es normal: al principio, con *SP-rako tranbia*, en euskara, tenía mis dudas; no sabía hasta dónde podía llegar. Seguramente, si hoy lo volviera a escribir, acentuaría más ese punto. Ésa es la razón: la confianza en ese tipo de prosa. Por eso se incrementa esa utilización en la traducción al castellano de *Un tranvía en SP*. De la misma manera que se incrementa en mi siguiente novela *Van't Hoffen ilea*. Y se vuelve a incrementar en su traducción *El pelo de Van't Hoff*. Y llega a límites terribles en el tercer libro que estoy escribiendo ahora: *Vredaman*.

Me preguntan también por los cambios en las figuras literarias: “zetazko nortasuna” se convierte en ‘personalidad de goma de borrar’, o “ikatz da infernuko pintura” en ‘el carbón es una pintura sin educación’. Desaparecen incluso, siguiendo por el mismo derrotero, muchas imágenes en el texto castellano (imágenes como “ospitaleetan azukrezkoak dira begirada guztiak”).

Éste será, posiblemente, el punto más difícil de explicar. La primera traducción que le viene al autor-traductor a la cabeza es: ‘personalidad de seda’ o ‘el carbón es la pintura del infierno’ o ‘en los hospitales todas las miradas son de azúcar’. Pero para mí no es lo mismo “infernua” e “infierno”, “azukrea” y “azúcar”, “zeta” y “seda”. ¿Por qué? Ésa es la pregunta que no sé responder. ¿Por mi cultura literaria, diferente en euskara y en castellano?, ¿por mi cultura social?, ¿por la diferente historia de las lenguas?, ¿por la diferente historia de esas palabras en las dos lenguas –por mucho que estemos hablando de palabras del mismo origen latino–?, ¿por la relación que tienen esas palabras con la literatura oral en euskara? No lo sé. Lo cierto es que sentía que no estaba diciendo lo mismo en castellano (no con todos los matices). Que si quería dejar la misma impresión en el lector castellano, tenía que cambiar la figura de forma radical (y muchas veces hacer que desapareciese). Y pasaba horas en busca de otra figura que eufónicamente fuera igual y que dejase el mismo poso en el lector.

Pero por otra parte, a pesar del cambio y supresión de varias figuras, otra de las conclusiones del estudio dice que parece haber mayor elaboración retórica en el texto castellano. Es cierto. Es normal, sin embargo, que cualquier autor que se enfrente a un texto antiguo intente reelaborarlo (me refiero en una misma lengua). De ahí saldrán nuevas ideas, nuevas imágenes... Esa reelaboración acabará cuando el texto salga de la imprenta en forma de libro. Está claro, así y todo, que si el autor tuviese la opción de seguir repasando ese texto convertido en libro, lo haría. Y lo cambiaría. Y añadiría cosas. Y haría evaporarse otras. Yo he tenido la suerte de poder hacerlo. Eso sí, cambiando de lengua. Si primero escribiese en castellano y después lo tradujese a euskara, haría exactamente igual.

Existe, para ilustrar todo esto y para finalizar este comentario, una anécdota sobre Álvaro Cunqueiro y su traducción de *Merlín e familia* (*Merlín y familia*). No sé si será del todo cierta, pero nos vale igual. *Merlín e familia* tuvo un éxito espectacular cuando se publicó en gallego y propusieron a Cunqueiro que él mismo tradujese la obra a castellano. Tradujo corrigiendo y aumentando, por supuesto (creo que añadió capítulos nuevos). Cuando al cabo de unos años le propusieron volver a editar el libro en gallego, cogió la versión castellana, hizo una traducción al gallego y volvió a añadir un montón de elementos. Visto lo visto, agradecería que ningún editor me propusiera, dentro de unos años, volver a editar *SP-rako tranbia*. Tampoco es cuestión de volverse loco. Tan joven.

